



Jim Mather

Eskoziako ministro ohia,
independentziaren
aukera ekonomikoez

**«Europako
populazioaren
%1 gara, eta
petrolio
erreserben %60
daukagu»**



- **Migrazioa** Euskal Herrian bizi diren zortzi emakume afrikarren gogoetak
- **Antonia Manot**, Txiki hil zuten garaiaz «Nik ez nekien ezer politikaz, nik neure semea nahi nuen»
- **Pasai Donibane** Eliteko emakume arraunlarien ibilbideak 40 urte bete ditu
- **36ko Gerra** Memoriaren berreskurapenean pauso garrantzitsua eman dute Villabonan
- **Argia Eguna** Lur hondatuak biziberritzeko hazi bolak egingo ditugu
- **Net Hurbil** Gazako gerra asimetrikoaren datu gordinak

bertso saioa

argiaren alde

Irailaren 27an

Usurbilgo frontoian • 18:00etan



Amets Arzallus



Uxue Alberdi



Miren Amuriza



Julio Soto



Sustrai Colina



Rosi Lazkano

5 € • sarrera bertan

argia
eguna



Azaleko argazkia:
JIM MATHERREK UTZIA
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iriztiak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko irailaren 14a, 2.428. zenbakia

ASTEKO GAIA

EMAKUME AFRIKARRAK Migrazioak eraikitako nortasun berriak.
IURE EIZAGIRRE / 4

PERTSONAIA

ANTONIA MANOT: «Semearena gertatu baino lehen ere, jendeak ikaragarri lagundu zidan hemen». MIEL A. ELUSTONDO / 9

GAIK

ARRAUNA Boga-boga batelera. AINHOA MARIEZKURRENA / 14
AUZOLAN ESPERIENTZIAK Festa giroan historia berpiztuz.
LIDE HERNANDO / 17

IRITZIAREN LEIHOA

SUBIRANOTASUNA ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

ASIER BLAS MENDOZA / 18

IPURBELTZ OIER ARAOLAZA / 20

HIRU BELAUNALDI ETA DESIO BAT ENEKO OLASAGASTI / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 19

TXANDAN Zifrak. KATTALIN MINER / 20

ZIRTAK Atarikoa. DANELE SARRIUGARTE / 22

ERDIKO KAIERA

INES OSINAGA: «Maurizia dantzatokitaino eramán nahi dugu».
MYRIAM GARZIA / 24

IMANOL ORDORIKA BENGOTXEA Sortzaile osoa.
MYRIAM GARZIA / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URÍA / 28

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Burua itzali eta begiak piztu. N. IRAZUSTABARRENA / 31

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

TERMOMETROA

1936KO GERRA VILLABONAN Atzoko aztarnak arakutzen, gaurko minaren sendagarri. URKO APAOLAZA AVILA / 36

ETIKETAJEA Zergatik ez du katalanez etiketatzen Coca-Colak?
ONINTZA IRURETA AZKUNE / 40

ARGIA EGUNA 'Nendo Dango': argiazaleon aleak ama lurrari biziberritzen laguntzeko. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 42

XENOFobia Ultraeskuinaren etxe okupak, hedatzen ari den arriskua. JUDITH PEREZ, MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 43

JIM MATHER, ESKOZIAKO MINISTRO OHIA: "Independentziarekin, etorkizun hobe, justuagoa eta oparagoa eskuratuko dugu".
ANDER PEREZ / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Infernua zenbakitan: Gaza 50 eguneko gerra isildu ostean. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

EMAKUME AFRIKARRAK

Migrazioak eraikitako nortasun berriak

Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiak landutako datuek diote EAEn bizi diren Afrika Beltzeko gizonen kopuruak emakumeena bikoizten duela 2002az geroztik. Datu hutsez harago, gutxiengo horren eguneroko errealitatea eta migrazioak eurengan utzi duen arrastoa ezagutu nahi izan dugu.

Testua eta argazkiak:

| IURE EIZAGIRRE |



Euskal Herrira migratu duten emakume afrikarrek, eguneroko zailtasunen gainetik, atsegin dute elkarri laguntzeko eta ongi pasatzeko batzea.

JEANNE ROLANDE DACOUGNAK hurbiletik bizi du emakume afrikar beltzen egoera, senegaldarra eta kultura arteko bitartekaria delako, besteak beste. Berdintasun eta genero arloko ikasketa espezializatuen amaierako lanean, migrazioak EAEko emakume afrikarrengan eragiten dituen aldaketek hausnartu du.

“Pertsonak euren kultura egokitzen doaz, bakoitzak berea dakar jatorritik, baina beste herrialde batera heltzean kultura hori ulertzeko modua eta balioak egokitu behar dira. Aztertutako emakumeen kasuan, aldaketok izaera berrien eraikuntza ekarri dute, balio berriak hartu eta lehendik zituzten batzuk alde batera utzi dituztelako. Hangoa eta hemengoa hartuta, nortasun transnazionala eraiki dute eta horrek ahalduntze prozesua eragin du emakumeengan”.

Afrika Beltzeko hainbat herrialdetako zortzi emakume elkarrizketatu ditu Dacougnak eta ondorioztatu du aldaketak kosta egiten direla, hemengo bizimodura egokitzea kostatzen den adina. Migratzen duten emakume gehienek familia berriz elkartzeko egiten dute, hau da, senarra etortzen da lehenbizi eta emaztea ondoren. “Orokorrean, hau nolakoa den ikusi nahi dute. Gustura daude etorri izanaz, baina hemengo bizimodua gogorra egiten zaie hasieran, gero egokitzen doaz”. Batzuen-tzat, hango girotik ihes egiteko modua ere bada migratzea: “Ezkondutakoan, asko senarraren gurasoen etxera joaten dira bizitzera eta amaginarrebak agintzen die zer egin behar duten, ez dute mugitzeko askatasunik. Ondorioz, hona ekartzeko eskatzen diete senarrei”.

Irabazi adina galdu duenik bada, senarrak ekindako bideari jarraitzeagatik, jatorrizko herrialdeetan egindako goi mailako ikasketekin bat zetozen lana eta goi-erdi mailako estatusa utzi behar izan baitu hainbatek. Horietako batek honakoa adierazi zion Dacougnari: “Gustatuko litzaidake Afrikan bizitzen jarraitzea. Ez dut esan nahi ezer irabazi ez dudarik, baina balantzea eginez, hona etorrita asko galdu dudala uste dut. Han lanean egongo nintzateke, postu finkoa nuelako, ikasi eta gustuko nuen horretan”. Hala mintzo da beste bat: “Hemen bizitza oso gogorra da, oso zaila

da aurrera egitea. Mailaz jaitsi naiz, han diplomatura atera eta horretan ari nintzelako lanean. Baina hemen ez da gauza bera, hemen aukera duzun horretan egiten duzu lan”. Lan arlotik begiratuta, Senegalen bere burua gehiago baloratzen zuela aitortzen du elkarrizketatuak.

“Oso ongi prestatutako jendea da, baina hemen egoera kaskarrean daude eta ez dute titulua balioztatzeiko ikasten hasteko indarrik. Eta hori gabe, ikasketarik ez bazenu bezala da”

Jeanne Rolande Dacouгна,
kultura arteko bitartekaria

Galdutako ikasketak

Jatorrizko herrialdean ikasketak eginda, gurean lana errazago aurkituko dutela uste dute, baina hizkuntzak batetik eta ikasketak balioztatzeak bestetik, egitekoa zailtzen dute. Balioztatzea oso prozesu luzea eta garestia dela, eta gehienetan gaitasun-proba eginarazten dietela argitu du Dacougnak. “Drama bat da, oso ongi prestatutako jendea da, baina

hemen egoera kaskarrean daude eta ez dute titulua balioztatzeiko ikasten hasteko indarrik. Eta hori gabe, ikasketarik ez bazenu bezala da, ezin dute lanik egin ikasitako horretan; ikasketa gutxi dituen migratzailearen estereotipoa sortzen du horrek”. Dena den, aitortu du gurera unibertsitate ikasketadun emakume gutxi heltzen direla, kolonizazioen ondorioz harreman gehiago dutelako Frantzia edo Erresuma Batuekin, eta hara edo Ipar Amerikara joan ohi direla.

Fatima Ndiaye senegaldarra batxilergoa eginda etorri zen Bilbora, 18 urterekin unibertsitate ikasketak egitera. Gauzak uste baino motelago joan ziren, ordea: “Ez nekien sistemak nola funtzionatzen zuen hemen, beste herrialde batetik bazatoz

lehenbizi selektibitatea egin behar da. Horrek urteak galazazi zizkidan. Administrarritza eta Finantzak Heziketa Zikloa egin behar izan nuen eta Senegalen ikasten hasia nintzen gaztelania hobetzen lagundu zidan”. Oraindik ez ditu unibertsitate ikasketak amaitu, baina bukatzean master bat egiteko asmoa du.

Zenbaitek, paperik ez izateagatik bidean galdu ditu ikasketak: “Biziraun behar baduzu ikasketak alde batera

uzten dituzu”. Ikasketa “faltaren” ondorioz, kualifikazio gabeko lanpostuetan aritzen dira Afrika Beltzeko emakumeak eta sarri arrazakeria pairatzen dute. Etxeetan lan egiteko, esaterako, estereotipoak nagusitu dira: emakume beltzak ez direla hain mai-tekorrak, ezin dituztela pertsonak ongi

Afrikan ere ari dira aldaketak ematen. Emakumeak hezkuntzarako aukera gehiago izateak eta unibertsitatera joateak harremanak izateko, pentsatzeko eta nork bere burua hautemateko modua aldatu du

EMAKUME AFRIKARRAK

zaindu, eta basatiagoak eta menderakaitzak direla, ez dituztelako etxe batzuetako lan baldintzak onartzen. Ondorioz, merkatartizan, azoketan, egiten dute lan askok; hondartzetan, txirikordak egiten, beste batzuek; kontserba-industrian kostaldean bizi direnek; garbiketan eta ez jendaurrean, ostalaritzan dihardutenek...

Bikote harreman berriak

Emakume beltzen migrazioak aldaketak eragin ditu harremanetan: bikotea berdinen arteko hartu-emanen oinarritu behar dela aldarrikatzen dute. Afrikan, adibidez, gizonak orokorrean ez dute etxeko lanik egiten eta hemengoek gero eta gehiago egiten dituztela ikusita, etxeko zereginetan parte hartzeko eskatzen diete senarrei, ingurune berri batean daudela argudiatuz. Gizon asko pausoa ematen ari dira, baina emakumeek hain barneratuta dutenez horiek beraien lanak direla, kosta egiten zaie eskatzea. “Emakume eta gizonarenak diren eremuen mugak mugiarazteagatik errudun sentitzen dira”, dio Dacougnak. Bestalde, bikotekideen arteko elkarriketa eta euren arteko eta seme-alabenganako maitasun adierazpen publikoak txertatu nahi dituzte egunerokoan.

Afrikan ere ari dira aldaketak ematen. Dacougnak dioenez, emakumeak hezkuntzarako aukera gehiago izateak eta unibertsitate-joateak harremanak izateko, pentsatzeko eta nork bere burua hautemateko modua aldatu du. Autonomia ekonomiko handiagoa izateak aldaketak eragin ditu gazte hiritarren artean.

“Senegalen gaur egun emakumeak independenteagoak eta langileak izan arren, dagoeneko gogorarazten ari zaizkit 24 urte ditudala eta ez nagoela ezkontuta. Inguruko denak ezkontzan pentsatzen ikusten ditut eta ni, aldiz, ez”

**Fatima Ndiaye,
senegaldarra**

Ndiaye belaunaldi berri horretako kide da, Dakarren jaio eta hezia. Afrikan emakumeak duen lekuaren inguruan galdera ugari erantzun eta estereotipo askori aurre egin behar izan dio hemen, baina aipatu du bere haurtzaroa eta nerabezaroa ez direla izan Euskal Herriko lagunek izandakoarekiko hain ezberdinak. “Dakar hiriburua da eta han beste bizimodu bat dago, nekazaritza inguruekin alderatuta; landa eremuan emakume batzuk ez dira eskolara joaten, gehienak etxeko lanetan aritzen dira, garapen eta baliabide gutxiago dutelako”.

Atzean uzteko ohiturak

Afrika Beltzeko emakumeek migrazioarekin atzean utzitako ohituen artean dago genitalen mutilazioa, eta horren kontrako borrokari ere ekin diote.

“Badakite hori emakumeen giza eskubideen aurkakoa dela eta inolaz ere ez dute nahi beraien umeek hori pairatzerik”, azaldu du Dacougnak.

Herrialde afrikarretan erabat sustraitua dagoen poligamiaren kontra ere ari dira, gazteak bereziki. Kasu honetan, poliginia da zehazki, hots, senarrak emazte bat baino gehiago izatea. Herrialde ugarian legezkoa da ezkontza eredu hori, baina kultura arteko bitartekariak dioenez, emakume gazteek euren senarrei argi uzten diete ezkontza monogamia ez bada, ez direla ezkontuko, ezkongabe izateko arriskua bere gain hartuz. “Emakumeek planto egiten dutenez, sarri monogamia sinatzen du bikoteak, baina gero gizona beste emakume batekin ezkontzen da erritu tradizionalen bitartez”. Dacougnak

Laguntza eta askatasuna, taldean

AFRIKAKO EMAKUMEEK elkartzeko ohitura dute. Taldeak dituzte Donostian, Ondarroan eta Bilbon, adibidez. Jeanne Rolande Dacouгна Donostiako taldean dabil eta, besteak beste, beraien ekonomia hobetzeko sarea eratua dute, Afrikatik ekarritako Tontine elkartasun bankuarekin. Kide bakoitzak diru kopuru bat jartzen du, euretako batek beharrezko duen proiektua garatu dezan,

semea edo alaba atzerrira ikastera bidaltzea, esaterako. Bermerik ez dutela argudiatuz, bankuek emakumei dirurik ez dietelako uzten garatu dute estrategia hori Afrikan, eta hemen ere lagungarri zaie. Ekonomiaz gain, familia-plangintzaz eta heziketa sexualaz zein diskriminazioaren aurkako estrategiez hitz egiten dute taldeetan, askatasunez. Jendaurrean ere, Afrikaren bestelako irudia eraku-

tsi nahi duten emakumeak dira. “Urte askoan gerraz, borrokaz, gaixotasunez eta pobreziaz betetako Afrika erakutsi dute hedabideek. Errealitate hori badago, baina ondoan bizirauten duen eta aurrera egin nahi duen jendea dago. Afrikaren irudi positiboa erakusteko garaia dela uste dut eta afrikarroi dagokigu hori egitea”, iritzi dio Fatima Ndiaye senegaldar gazteak.

elkarrizketatutako emakume gehienak (zor-
tztitik zazpi) poliginiaren aurka daude. “Nire
ustez, familia desagitea eta umeak bakarrik
uztea eragiten duen arrazoi nagusietakoa
poligamia da. Ume asko sistematik kanpo
geratzen dira, amak haurra mantentzeko ahal
duena egin arren aita hilabete hemen, beste
bat han eta hirugarrena beste nonbait pasa-
tzen badu, ezin duelako. Gainera, hiesa eta
bestelako gaixotasunak oso zabaldua daude
Afrikan eta ama hilez gero, seme-alabak
noraezan geratzen dira, batzuk amonarekin,
besteak izebarekin, amatzakoarekin...”.
Elkarrizketatu bakarrak defendatu du poliga-
mia, etxean bizi izan duela, Senegalen emaku-
meen kopurua gizonena baino handiagoa
dela, eta norbera ezkondu eta besteei horretar-
ako aukerarik ez ematea berekoa dela argu-
diatuta.

Gurean poligamia ez da legezkoa, eta
ondorioz, gizonezkoek ezezkoa jasotzen dute
poligamia aipatuz gero. Beste irtenbide
batzuk bilatu behar izaten dituzte: monoga-
moa dela dioen beste ezkontza ziurtagiri bat
atera eta emazteetako bat —gehienetan gaz-
teena— etortzen da emazte ofizial gisa; bes-
teak jatorrizko herrialdean geratu, txandatu
edo turista bisarekin etortzen dira. Azken
horiek agiririk gabeko migratzaile bihurtzen
dira.

Emakume ezkondua izateak duen balioa
da poligamiaren arrazoietakoa bat. “Senegalen
gaur egun emakumeak independenteagoak
eta langileak izan arren, dagoeneko gogora-
razten ari zaizkit 24 urte ditudala eta ez nago-
ela ezkondua. Inguruko denak ezkontzan
pentsatzen ikusten ditut eta ni, aldiz, ez. Pre-
sio sozial handiagoa dago, ez familiarena
bakarrik, gizartea duzu egiten duzunari begi-
ra”, dio Ndiayek.

Amatasuna emetasun

Dacougnaren esanetan, seme-alabak izateak
balioztatzen du ezkontza, baina emakume bel-



Fatima Ndiaye gazte senegaldarrak begi onez begiratzen dio Afrikari, Bilbotik: “Afrikaren irudi positiboa erakusteko garaia da eta afrikarroi dagokigu hori egitea”.

tzentzat esanahi gehiago ditu amatasunak:
“Emetasunaren oinarria da, emetasuna amata-
sunaren bitartez finkatzen da”. Afrikan balio-
rik handiena duen gauzetako bat da eta zenbat
eta ume gehiago izan, orduan eta estatus



Xapoa

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

EMAKUME AFRIKARRAK



Aldarrikapen ugari zituztela erakutsi zuten emakume beltzek maiatzaren amaieran Bilbon egindako Afrikaren Egunean.

hobea izango dute emakumeek. Inguru berria egokitu beharrak, umeein laguntzeko sare murriztagoa izateak eta bizi-baldintza ezegonkorak ume gutxiago edukitzera behartu dituzte emakumeok Euskal Herrian. Hala ere, hainbeste haur diru-laguntzengatik izaten dituztela entzun beharrak haserretu egiten du Dacougnak: “Emakumeok ezjakin, kulturagabeko eta senarren meneko irudikatzeak sortu duten estereotipoa da eta ez du zerikusirik”.

Hemen hezitako seme-alabak sarri afrikarrak dira, jendearentzat. “Euskal gizarteak horretaz gogoetatu eta onartu behar du hemen dauden haur beltzak euskaldunak direla, hemen jaio direla, hau bakarrik eza gutzen dutela. Afrikarrak direla esaten diete eta neurri txiki batean badira, baina hemen sozializatu dituzte”, dio Dacougnak. Gure gizartean, aniztasunaren aldeko lan asko egin behar dela uste du kultura arteko bitartekariak.

Beldurra da emakume beltzen migrazio prozesuari estuki lotutako sentsazioa. Gehienek euren jaioterrira itzultzeko asmoa dute, Ndiayek, adibidez, ikasketak amaitzean Dakarrera itzuli nahi du, baina egonezin apur bat sentitzen du: “Oso gazte atera nintzen handik, bakarrik bizi naiz, oso pertsona independentea naiz, nire buruaren jabe, eta itzultzea zaila da, pentsamoldea aldatu ez arren, gauza asko ezberdin ikusten dituzulako. Gizartera egokituko al naiz? Beldur zara”. Ausardiarik ez zaie falta, ordea, eta senegaldar gazteak argi du: “Bizitzan, probatzea da kontua”. ■



LIZARDI

LIBURUDENDA

Etxebeste kalea 1, Usurbil

☎ 943 36 11 15

ANTONIA MANOT

«Semearena gertatu baino lehen ere, jendeak ikaragarri lagundu zidan hemen»

1975eko irailak 27. Franco azkenetan, Juan Carlos I.a Borboikoa ordezeko izendatua. Bost fusilatu: Txiki, Otaegi, Sanchez Bravo, Baena, Garcia Sanz. Txikiren ama da Antonia Manot. Zalamea de la Serenatik Zarautza, Bartzelonatik barrena...

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Dani Blanco



ANTONIA MANOT

Antonia Maria Manot...

Manotas ginen herrian, Antonia Maria Manotas Garcia izan naiz ni beti, eta Manotas Garcia izan dira beti nire senideak ere. Horretan, nire Jon hil zen garaian, hasi dira Bartzelonan eta ez zela Manotas deiturarik inon agertzen! Manot jarri zioten Joni. Nik, berriz, Manotas ginela esaten nuen, nolatan jarriko zioten, bada, Manot! Nire Mikelek [semerik zaharrena] erregistrora jo zuen, Manotas bila, alegia, baina ezetz, han ez zela Manot besterik agertzen, herriko jendeak sortua izan behar zuela Manotas horrek.

85 urte dituzula esan zidan zure seme Kepak.

1929koa naiz, ekainaren 14koa, Zalamea de la Serenan jaioa [Badajoz, Extremadura]. Hango herrietan ederrena! Inguruan dira Esparragosa, El Puerto, Higuera, Monterrubio... Oso herri txikiak, ez mediku ez beste, auzo dira kasik. Aldiz, Zalamea de la Serena bada herri.

Laborariak zineten etxean.

Laborari zailduak. Gurasoek lurra zuten, garia, oloa eta gainerakoak ereiten zituzten. Mandoak zituzten laborantzarako. Huraxe zuten ogibidea. Urtean behin, zerria hilko zizuten, eta handik txorizoa, solomoa, odolkia... etorriko ziren.

Etxean laborariak, baina zu ez zinen, horratik, sorora askorik joaten...

Etxeko andereñoa nintzen eta! Bost senide ginen, bi mutil eta hiru neska, neu zaharrena, eta andereñoa! Haiek aitarekin joaten ziren sorora egunero, mandoak hartuta. Andereño hau, berriz, jostera joaten zen. Gurasoek erabaki zuten, nik ez nuen horretan parterik izan. Inondik ere, Antonia Maria zen haien nahiena. Etxe haietan zaharrena zen behinena. Gurean, nil

Zalamea de la Serenatik Zarautza etorri zineten.

Lehenengo, nire ahizpa, Anita, orain Zalamean dagoena. Huraxe etorri zen lehenengo, senarrarekin. Lantegi batean hasi zen hemen lanean. Haren atzetik, nire anaia Fernando eta nire gurasoak etorri ziren. Ni han geratu nintzen, artzain batekin ezkondu. Ardi artean, kito andereño izatea! 21 urte nituen ezkondu nintzenean, esperoan nengoela. Gero, bata bestearen ondoren etorri ziren umeak, zazpi; gainera, abortu bat eta hil zitzaidan beste bat, bederatzi denera. Bost ume nituen hona etorri ginenean, eta ordurako hemen zen zaharrena, Mikel, nire gurasoekin. Niri karga arintzeko ari ziren.

Mikele I

"Etxepekoa genuen emakumea, baina etxetz aldatua dago orain. Oso lagun onak ginen. Eta ezer behar nuenean, hantxe beti Mikele. Gizona eta bi ume zituen, baina Mikele beti niri laguntzen, honetan eta hartan eta behar zenetan. Ahizpa baino gehiago izan dut. Bartzelonara joan behar izan nuenean, Bartzelonara etorri zen nirekin! Militarrek ikustera joan ginen, erruki eske, Jon salbatzeko eskatzera. Kapitain batek hartu gintuen, behintzat: 'Ez dago egin litekeenik. Miraria gertatzen ez bada, akabo!', esan zigun".

60ko hamarkadan hemen zineten zuek, 1962an hor nonbait.

Bai, nire Mikelek hemen egin zuen eta jaunartzea, nire gurasoekin. Zuk gauza asko dakizu nitaz, e!

Zer edo zer irakurri dut han eta hemen. Azkena, Bernardo Atxagak egin zizun elkarrizketa *Erlea* aldizkarian.

Pozten nau baten bat nitaz gogoratzea!

Jendea zutaz gogoratu dela esan izan duzu beti, zenbat jende etorri zaizun etxera Jon hil eta gero.

Bai. Zuk ez dakizu zenbat balio duen horrek semea galdu duen ama batentzat! Jendearen emana etxean. Estimatu hori. Nik semea galdu nuen, berak esan zidan bezala, baina asko irabazi nituen Euskadin! Jonena gertatu eta gero, ni kalean batera edo bestera eta, parean, hiru-lau gazte, bikainak, batere ezagutzen ez nituenak: "Agur, ama! Agur!". Zalameatik hona etortzea zerua izan zen niretzat, baita nire semearena gertatu baino lehen ere, jendeak ikaragarri lagundu zidan eta. Zerutik jaitsia bezala erori nintzen Zarautzen, denek laguntzen zidaten.

Itsasoa behin ere ikusi gabea zinen Zarautza baino lehen!

Baita zera ere! Honek atera behar dizkigu babak eltzetik! Putzu txar bat baino ez zen han, buru gainean otarra hartuta arropa garbitzera joaten ginena. Aska baten modukoa zen, Zarautzik Getariara dagoen distantziara, arro-

NORTASUN AGIRIA

Antonia Maria Manot Garcia (Zalamea de la Serena, Extremadura, Espainia, 1929). Frankismoaren hondarrean, 1975eko irailaren 27an, fusilatuta zituzten bost borrokalarietako baten ama da, Jon Paredes Manot "Txiki"rena. Semea bidegabe hil zioten amaren lekukotasuna da Manot, eta, horrekin batera, etorkinaren historia bizia.



Antonia Manot, Jon Paredes "Txiki"ren hilobi aurrean, seme-alabetako bi atzean dituela.

pa garbitu eta lixiba jotzekoa. Garbitu ondoren, hartu atzera otarra buru gainean eta Zalameara. Hura ez zen bizimodua! Hura lanean akabatzea zen! Bizimodua hemen dago.

Hemen ere bazen lana. Hogeita hamabi urtez frantziskotarren ikastetxean egin zenuen lan, sukaldean zerbitzatzen.

Familia hazi behar nuen! Etorri eta laster hasi nintzen haiekin lanean. Fraideak gazte-gazte,

Mikele II

"Jon hil eta gero, iluntze batean, gizon batzuk sartu ziren hona, etxera. Hemen, nire umeak, fraide bat eta ni geunden. Galdezka eta joka eraso ziguten. Nik, burua odoletan, eskaileran behetik gora Mikeleri hoska, 'Mikele, Mikele, umeak akabatu nahi dizkidate'. Eta hantxe Mikele goitik behera, auzoei hoska: 'Irtten denok etxetik, Antonia akabatu nahi dute!'. Gizon haiek zalaparta aditu zutenean, nire etxetik irten, autoan sartu -ingurua dena ilunpetan zegoen-, eta hanka egin zuten. Gu odoletan, umeak negarrez... Orduan ere, hantxe Mikele. Beti ondoan izan dut emakume hori".

lirain eta lerdan... Mutil ederrak, gero! Ez zidatelako eskatu, bestela, ikusiko nukeen! Kar, kar, kar. Hamabietatik laurak arte egiten nuen lan fraideetan. Laurogei umeri zerbitzatzzen nien janaria, neuk bakarrik. Tira, batzuetan han etortzen zen frai Bartolo: "Izerditan zaude. Lagunduko dizut". Lanean hasi eta bi hilabetera, aita Biainek hots egin zidan: "Antonia Maria, zuzendaritza bildu da eta erabaki dugu semeak lanean hasi eta etxera dirua ekarri artean behar beste ogi eramateko etxera". Sei urtean ekarri nuen ogia etxera, Mikel eta Jon lanean hasi arte. Neuk esan nien frantziskotarrei: "Nahikoa, semeak lanean ari dira, ez dut ogi gehiago eraman beharrik izango. Eskerrik asko!". Fraideek lagundu, bai horixe!

Mikel eta Jon, bi zaharrenak.

Mikel aitona-amonekin hazi zen hemen aurrea. Osaba-izebak ere hemen zituen. Hemen egin zuen jaunartzea, fraideetan hasi zen ikasten. Gainerakoek ere frantziskotarren ikastetxean ikasi zuten, lanean hasi ziren ikasketak egindakoan.



AZKEN HITZA

Zapata takoien hotsa

Antonia Manotek inoiz esanak, Jokin Urainek *Agurra eta Ohorea* liburura aldatuak: "Hileta eguna izugarria izan zen. Etxeko txikiek koroa bana zeramatela abiatu ginen. Etxetik irten eta elizara gindoazen trenaren pasabidetik. Lehenago, berrogei edo berrogeita hamar polizia etorri eta gerarazi gintuzten. Jendea negarrez, koroa haiek, isiltasun hura... zapata takoien hotsa besterik ez zen aditzen. Entzuten ari naiz oraindik".

Eta gero, zer gertatu zen? Ezer sumatzen zenuen?

Hasieran, ezer ez. Bestelakoan, Jonena gertatu baino lehen, ezer ez. Izan ere, gu Extremadurakoak ginen, euskara hemengo hizkuntza zen, baina ez zitzaigun gurea iruditzen. Egoista izatea zer den!, ez zitzaigun gurea iruditzen. Tira, gogoratzen naiz Plásticos Zarauz lantegian ari zela Jon. Eguerdian bazkaltzera etorri eta esaten zidan: "Ama, zertan ez duzu euskaraz ikasten?", "asko kostatzen zaidalako, ene umea!". Hitz batzuk esaten zizkidan euskaraz nire Jonek, baina airean

ahazten zitzaizkidan. Lehenengo, Juan zen hura, baina Jon nahi zuen: "Ama, Juan luzeago ez da, bada! Jon motxago da!". Haren kontuak. Lagunekin mendira joan, menturaz, eta, itzulian, lau-bost lozaku Jonen logelan. "Jon, eta lozaku hauek?", "lagunek utziko zituzten, ama". Holaxe.

Noiz jakin zenuen Jon falta zitzaizula?

Abuztuan. Uztailean, beharbada. Eta irailean hil zuten! Azken ordu arte jardun zuen lanean, Zarautzen lehenengo, Zumaiko Xey lantegian gero. Hil zutenean, gutun-azala bidali zidaten Zumaiko lantegitik. Diru mordoa! Ikusi nuenean izutu nintzen! "Ezin da izan, kontua txikiagoa da, seguru". "Hartu, mutil maitagarria zen", esan zidaten. Zumai-ko langile haien artean batu zuten dirua.

Bizpahiru aldiz ikusi zenuen, etxetik alde egin eta gero ere...

Tira, Jon etxetik joan eta Donostian ikusi nuen, Iparraldean, eta Zumarraga inguru horretako herri txiki batean. Gogoan dut Zumarragako hori, erroskilak eraman nizkiolako: "Hara, nire lagunak ez dira gaur haserre izango", esan zidan. Donostiakoa hunkigarria izan zen. Nik banekien saltsa zegoela,

Imanol Murua

“Hil zutenean, militarrek ez ziguten gorpua Zarautza ekartzen utzi. Han, hiru familiei hilobi bana eskaini ziguten. Pons Rovira familiaren panteoian egon zen, haiek ere semea zuten preso. Handik hamabost hilabetera ekarri genuen Jonen gorpua Zarautza. Harrezkero bakean da. Horretan ikaragarri lagundu zigun orduko alkateak, Imanol Muruak. Hari eskerrak!”.

baina ez saltsa lodi hori! Mikelek esan zidan Jonek anaia txikienak ikusi nahi zituela. Hala-koxea zen! “Bada, goazen”, esan nion nik. Eta Mikelen autoa hartu eta joan ginen, Jonek Kepa eta Perdi ikusteko. Izenak euskaratuak dituzte epaitegian; lehen Pedro eta Fernando ziren. Fernandori, euskaraz, Perdinanda jarri zioten, baina oso luzea da, eta Perdi esaten diogu. Parte zaharrera joan ginen, hantxe gu autoan, zain, Jon nondik azalduko. Halako batean, mutil altura txikiko bat, ondo jantzia, kartera moduko bat galzarbean, betaurrekoak... Irakaslea ematen zuen. Ez nuen ezagutu! Mozorrotuta zetorren. Ez zen nik ezagutzen nuen Jon. Eta hango muxuak! Nik ez nekien ezer politikaz, nik neure semea nahi nuen!

Bartzelonan ere ikusi zenuen...

Joan nintzen, baina ez zidaten ikusten utzi. Eguna eman nuen kartzela barruan, zain, ikusiko ote nuen, ilundu eta itxi zuten arte. Bada, ez zidaten utzi. “Ea bihotzik duzuen, agurtu egin nahi dut!”. Bada ez zidaten utzi azken agurra ematen. Txakurra bezala eduki zuten... Epaiketan ikusi nuen azkena. Alde batean, guardia zibil mordoa, Jonen inguruan; bestean, gu, jarrita. “Ezin diot nire semeari muxurik eman, ala? Ezin diot muxurik eman!” Hitz egin zuten, nonbait, eta baietz, muxu bat. Eta joan nintzen eta muxu eman nion. Eta esan nion, dena guardia zibil bezala inguratuta geundela: “Badakizu zer egin behar dizuten?”. “Bai, ama, badakit, harrapa-

tu nindutenetik!”. Zer edo zer ikusi nion eta alkandora lepoa jaitsi nion pixka bat. Ubelduta zuen dena: “Oi, umel, zer egin dizute? Nola daukazu gorputza?”. “Bai, ama, holaxe! Kaputxaduna etortzen zitzaidan, eta esaten zidan: ‘Vasco-extremeño, gogorra haiz, gero! Hiregatik ez duk inor eroriko!’”. Eta Jonen azken hitzak, niri esan zizkidanak: “Ez larritu, ama, seme bat galduko duzu, baina hainbat irabaziko dituzu Euskadin”. Eta halaxe izan da.

Militarrek ez zizuten utzi semeari azken agurra ematen. Zure seme Mikelek agurtu zuen heriotzako orduan, fusilatu zuten momentuan.

Ez genuen bakarrik utzi nahi. Dio Mikelek inoiz ez duela ahaztuko Jonen begirada hura. Ezin da ahaztu. Nik ez nuen barrenik izango, ezingo nukeen... Harrezkero, bai, izanak gara Bartzelonan eta hil zuten lekuan. Abokatuekin ere izan ginen han [Marc Palmes eta Magda Oranich] eta, azkena Kataluniara joan garenean, hil zuten lekura joan ginen, ikurri-na jarri, loreak... Xafla bat ere badute nire Jon hil zuten lekuan. Hala ere, ekitaldia denean jarri, eta ezer ez denean jaso egiten dute, eraman egiten dute bestela.

39 urte dira aurtan zure semea eta beste lau lagun fusilatu zituztela. Nola igarotzen dituzu orain irailaren 27ak?

Urte asko dira, eta onartzera iristen zara. Baina beti gogoratzen duzu. Hala ere, berak sinesten zuenarengatik hil zen. Irailaren 27 hartan Txiki hil zuten, hil zuten Otaegi, eta hil zituzten beste hiru lagun Madrilan. Ez da haien izenik entzuten. Haietako baten arre-bak, bai, hitz egiten du [Flor Baena]. Beste batek familiarik ez du [Ramon Garcia Sanz]. Hirugarrenak ere, [Jose Luis Sanchez Bravo] familia handirik ez, nonbait. Gainera, badakizu, Madrilan, eta han ez dago ezer egiterik... ■



TALLERES MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

ARRAUNA

Boga-boga batelera

Ez dira urte asko pasa emakumeak traineruetara igo zirenetik. Pasai Donibanen (Gipuzkoa) 2010ean osatu zuten Batelerak tripulazioa. Hala ere, historia luzea dauka bertako emakumeen arraunak eta olatu ugariri aurre eginda, gainean mantendu dira.

| AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE |

PASAI DONIBANEKO BADIA lantoki zuten prestigio handiko emakumeak dira batelerak, XVII. mendetik bidaiariak San Pedrorara eramaten zituzten txalupariak, ontzien jabe eta gidariak. Arraunlariak ziren ofizioz, baina ez kirolariak. Omentzeko, 1962. urteaz geroztik, miresmena, nostalgia eta kiroltasuna uztartzen diren batelen estropada herrikoia egiten da jaietan, emakumeak protagonista dituenak. Gaur, lekukoa hartu diete Batelerak trainerua osatzen duten arraunlariek. Baina hamaika izan dira aurretik itsasoa urratu dutenak.

Pasai Donibanek beti izan du arraunarekiko zaletasuna eta aitzakia hori aprobetxatuta murgildu ziren itsasoa Maite Zunzunegi, Lourdes Mariezkurrena eta Miren Etxebeste. Banku mugikorrek lehen emakume arraunlariak izan ziren Espainiako Estatuan. 1973an herriko eta familietako “zoroak” ziren haiek bide luze baten hasiera marraztu zuten. Itsasoa sekula ez dutela bare izan kontatu digute.

Garai hartan, apenas zegoen konpetentziarik, ez baitzegoen emakume arraunlaririk Hego Euskal Herrian: “Kirola egiteko elkartzen ginen lagunartean, ez genuen estropadarik egiten”, adierazi du Zunzunegik. Izan ere, hori izan zen Mariezkurrenak arrauna utzi eta eskubaloian hasteko arrazoia, ezin lehiatu

ahal izatea. Urteak pasa ahala, Frantziara mugitzen hasi ziren, partaidetza handiagoa zegoela ikusita. 1977ko Espainiako Trofeo Federación txapelketan Urrezko domina lortu zuen Zunzunegik skiff modalitatean. 1978an, ordea, Brontzea lortu arren ez zuen saririk jaso: “Guretzat ez omen zegoen dominarik, ez gintuzten asko baloratu”. Lehian hasiak baziren ere, lehen emakumeen estropada ofiziala Espainiako Txapelketa izan zuten 1980an.

“Hasi zinetenoi esker gabiltza arraunean”

1982. urtean, 13 urte zituela hasi zen Ana Sistiaga entrenatzen. Lagunarteko hizketaldi batek berotuta, zortziko banku mugikorra ateratzea lortu zuten, baina bere arraunaldia ez zuen bertan igaro: Scull bikoitzean zebiltzan gizonezkoen lemazaina izan da, Espainiako Estatuko lehen emakume lemazaina. Sistiagak hasieratik parte hartu du txapelketetan, biko, lau eta zortziko ontzietan. Ez zen ohikoena emakume bat gizonezkoekin lehiatzen aritzea eta inoiz oztoporik jarri diotela kontatu du: “1985ean, Espainiako txapelketara abiatuta, federazioak parte hartzeko eskubidea ukatu zidan, emakume batek ezin zuelako gizonekin lehiatu”. Urte osoa entrenatzen igaro ostean, bere ordezkizko bat atera zela adierazi du. Kideak, kluba eta herritarrak erabakia erekin ados ez egon arren, protestarik ez zela egin gehitu du.

Oztopoak oztopo, lemazain igarotako urteak “bizitzako onenetarikoak” izan zirela azpimarratu du. Kirola egiteaz gain, “esperimentiaz beteriko urteak” izan baitziren. Orainsu, gainera, Jaione Osoro Zumaiako patroiarekin izandako berriketaldi batean, utzitako arrastoaz jabetu da Sistiaga. “Garai hartan hasi zinetenoi esker gabiltza orain arraunean”, esan dio Osorok Sistiagari.

“1985ean, federazioak Espainiako txapelketan parte hartzeko eskubidea ukatu zidan, emakume batek ezin zuelako gizonekin lehiatu”, kontatu du Ana Sistiagak. Urte osoa entrenatzen igaro ostean, gizonezko batek ordezkatu zuen



Lourdes Mariezkurrena eta Miren Etxebesterekin batera, argazkian ageri den Maite Zunzunegi izan zen banku mugikorreko lehen emakume arraunlaria Espainiako Estatuan. 1973an herriko eta familietako “zoroak” ziren haiek bide luze baten hasiera marraztu zuten.

Hasitako bideak ez du etenik izan. Urte batzuk geroago, 1989an, antzeko arrazoi batekin ekin zion Eva Mironesek arraunari; lagun artean “zerbait egiteagatik” eta aitak konbentzituta. Ordurako jada emakume arraunlari gehiago zeuden beste herrietan eta estropada dezente egiten zituzten. Banku mugikorreko ontzian urrutira iritsi da Mirones. 1996an Brontzea irabazi zuen Espainiako 23 urtez azpiko txapelketan eta 1998an berriz, Urrezko domina. Euskal Herrian, Frantzian eta Espainian aritu da, baita munduko txapelketetan eta 2004ko Atenasko Olinpiadetan ere. “Edozein kiroltan espero daitekeen maila gorenera iritsi naiz”, adierazi du, “eta munduko kirolari onenen artean nengoela pentsatzeak harro-tasunez betetzen nau”.

Mirones Olinpiadetan parte hartu duen lehen emakume arraunlari euskalduna izan da. Haatik, inoiz ez du omenaldi edo oroigarririk jaso egin duen ibilbideagatik. Baina horrek ez du kezkatzen: “Nik arrauna niretzat egin dut, nire burua asetzeko”. Gainera, sekula ez du ezer faltan bota: “Niretzat per-

tsona baloratzea behar duena ematea da, entrenatzeko zein estropadetarako baliabideak izatea, eta izan ditut”. Kirolaren goialdea ezagutu duela sinetsita, arrauna utzi behar izan zuen 2006an, sorbaldako lesio batengatik.

Nola aldatu diren gauzak, kamarada

80ko hamarkadan utopia zen emakumeen batelan edo traineruan pentsatzea. “Gerora egongo zela sinesten genuen, baina ez une hartan”, dio Ana Sistiagak. Eta momentua iritsi zen. 2008an hasi ziren traineruak sortzen Euskal Herrian barrena: Hondarribia, Getaria-Zumaia, Tolosa... Lehen estropada EXPO Zaragozan izan zen, Bizkaiko selekzioa Gipuzkoakoaren aurka. Urte horretan ere Kontxako estropadak hasi zituzten.

Bultzada aprobetxatuta, 2010ean Donibaneko arraun elkarteko zuzendaritzak trainerua sortzeko apustua egin zuen. Gutxienez hamalau arraunlari lotu behar zituzten uretara atera ahal izateko, eta bateletan zein trainerilletan zebiltzanak segituan animatu ziren. Maite Zunzunegi bera zegoen zuzen-



E. MIRONESK UTZIA

Goian, Eva Mirones. Olinpiadetan parte hartu duen lehen emakume arraunlari euskalduna da eta maila gorenera iritsi da kirolean, baina inoiz ez du omenaldi edo oroigarrik jaso. Behean, Batelerak ontziko egungo hiru kide: Oihana Cereijo, Inder Paredes eta Josune Ugarte.



A. MARIEZKURENA

daritzan momentu hartan, baita entrenatzailer ere. Lau mende geroago, beraz, batelerak herrira itzuli direla esan daiteke, oraingoan lehian aritzera. Itsasoa nahiko bare izan dutela adierazi badigute ere, haizea kontra ere izan dute inoiz. Larunbat arratsaldeko estropada baterako prest, antolakuntzak plana aldatu zien duela hiru urte. Bostetan hastekoa zen lehia zortzietara atzeratu zieten, “mareak gizonezkoen estropada oztopa zezakeelako”.

Brankari eutsita, hoguei pertsonak osatzen dute Batelerak tripulazioa, gehienak Donibaneakoak eta gazteak. Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak eta Gipuzkoa eta Euskotren ligak irabazi eta hamahiru bandera astinduta bukatu dute denboraldia. “Ez dugu arraunean ari den koadrila hutsa izan nahi, maila ona eman nahi dugu”, dio Oihana Cereijo arraunlariak. Emaizta horiek lortzeko urte osoan egin behar izan dute lan eta astean sei entrenamendu egiten dituzte. Taldea elkartuta mantentzeak arraunerako zein funtzionamendurako konplizitatea sortu diela gaineratu dute eta hori izan dela arrakastarako gakoa.

Kirolari eta jarraitzaileek helburua irabaztea dutela sinesten du Maite Zunzunegik, baina azpimarratu du gaurko traineruko arraunlariak ez direla “bat-batean” iritsi dauden mailaraino: “Itzalean mantendu den lan gogorrek ekarri ditu honaino, traineru aurreko urte guztiek, eta merezi dute”. Aurtengo denboraldiak herria gertuago sentitzen lagundu diela adierazi du Josune Ugarte ontziko kideak. Donibanen arrauna beti jarraitu da, baina aurrean herri osoak babesten dituela sentitu dute. “Bandera bat irabazi dugun bakoitzean, herritarren batek esaten digu urteak oparitu dizkiogula”.

Kontxako estropadan begirada zorrotz

“Gogoratzen dut duela bost urte izan zen emakumeen Kontxako lehen estropada”, dio Ana Sistiagak, “jendea ez zen kirolaz mintzo, berrikuntzaz baizik”. Errealitatearekin harrituta eta gizonezkoena “ikusgarriagoa” izatea ezin ulertuta, urte hauetan gauzak aldatu egin direla uste du. Eva Mironesen hitzetan, “emakume edo gizon, kirolean atea irekitzea primerakoa da eta Batelerak horretan ari dira”.

70eko hamarkadan hasitako bideak aurrera jarraitzen duela jakiteak eta Batelerak ontziak Kontxako bandera irabazi dezakeela ikusteak harrotasunez betetzen ditu garai hartan hasi zirenak. Traineruko arraunlariak adierazi dute helburua guztiz bete dutela dagoeneko, baina Kontxari begira daudenik ezin ukatu, Josune Ugartek onartu duenez “itxaropen eta indar handiz” aurkitzen baitira. “Segundo gutxitan gabiltzan hiru-lau ontziek xede bera dugu, inor ez da ari bigarren postuan pentsatzen”, dio Cereijok. “Sortzen den giroa sentitzeak, kirolaz gozatzeak eta batez ere, uretatik itzultzean arrapla arrosa kolorez ikusteak ez du parekorik”, gaineratu dute Ugarte, Cereijo eta Inder Paredes patroiak. ■



Festa giroan historia berpiztuz

Lehengo urtean berreskuratu zuten arrasatearrek Goikobaluko Erromerixie, antzina herrian ospatu ohi zen festa. Zuztarrak Errotuz taldeak proposatutako ekintzak 13 kolektiboren arteko auzolana bultzatu zuen, ekitaldia aurrera atera zedin. Arrakasta handia izan zuela ikusita, urtero ospatzen jarraitzea erabaki dute.

| LIDE HERNANDO |

ARRASATEN (Gipuzkoa) belaunaldiz belaunaldi transmititu dituzten istorioen artean, bazen bat herriko Goikobalu muinoan (Santa Barbara izenez ere ezaguna) egiten zen erromeri bati buruzkoa. “Dokumentatuta dauden datu eskasen artean, 1931. urtean behintzat ospatu zela egiaztatu ahal izan dugu: bonbilla argiztatuak, taberna bat, Gasteiztik ekarritako musika banda eta guzti”, dio Xabier Zubizarretak, Zuztarrak Errotuz elkarte kideak. Ahoz aho zabaldu denaren arabera, 1950. urtera arte egin zen erromeria. “Dena dela, ez zuen maiztasun jakinik”.

Goikobaluko muinoa (Goiko Obalutik eratorritako izena) Deba eta Aramaio errekek inguratzen dute. Antzina, gaztelu bat zegoen bertan, oso leku estrategikoa baitzen inguruko bailarak kontrolatzeko, eta horrexegatik historian zehar zenbaitetan okupatua izan da (Napoleonen tropek edota 1936ko gerran, kasu). “Hala ere, iristeko leku zaila denez, azken hamarkadetan oso baztertua eta hutsa egon da muinoa. Hori dela eta, eremuaren bizia berreskuratu nahi izan dugu Zuztarrak Errotuzekoek”, dio Zubizarretak.

Duela bi urteko planifikazioan, Goikobaluko Erromerixie berreskuratzeko asmoa agertu zuen taldeak. Herrian mugitzen ziren kultura eta kirol kolektiboek deialdia luzatu eta auzolanean arituz eta Udalaren laguntzarekin, lehengo urteko irailaren 14an ospatu zen berriz ere, hainbat hamarkadaren ostean. “Elkarte bakoitzak bere hondar alea ezarri zuen, erromeria ahalik osatuena gera zedin. Goizean kalejira batekin hasi genuen erromeria alde zaharrean, Goikobaluraino igoz. Bertan, bakoitzak bere janaria ekarri eta denon artean bazkaldu genuen; eta osterako kontzertua eta dantzaldia ere izan ziren”, azaldu du Zubizarretak.

Iazko esperientziak izandako arrakasta ikusita, urtero errepikatzea deliberatu dute. “Hemendik aurrera, dena den, iraileko hiru-



Iaz auzolanean berreskuratutako Goikobaluko Erromerixie ospatuko dute arrasatearrek, datorren irailaren 20an.

garren larunbatean ospatuko dugu. Aurten goa, beraz, irailaren 20an izango da”. Jada ia dena prest dute ekitaldirako.

Arrasateko historia eta kulturarekiko interesa

Arrasateren fundazioaren 750. urteurrenarekin batera sortu zen Zuztarrak Errotuz taldea, 2010ean. Herriaren kultura eta historia berreskuratzeko helburu, nahiz eta adierazi duten ez direla ikerketa lanetan aritzen diren historialariak. “Euskal Herrian, orokorrean, hutsune eta akats historiko asko daude, eta jendeari galdera horien erantzuna bilatzeko interesa piztea da gure asmoa”, dio Zubizarretak. Goikobaluko Erromerixie antolatzeaz gain, beste zenbait ekintza egin dituzte herrian, hala nola, urteroko hitzaldi ziklo bat (maiatzean) edota Arrasatek bizi izan dituen garai historikoei buruzko erakusketa, *Begira! Arrasate* izenekoa. ■





INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Subiranotasuna eta erabakitze eskubidea

SISTEMA DEMOKRATIKO liberalen kritika-tzaileen parte batek beti salatu ditu sistematik dituen metodologia gabeziak, halere, horiek ez dira egungo arazo nagusia. Prozedurek ez dute ezertarako balio, ez bada go zer erabakitzerik. Subiranotasuna beharrezko baldintza da demokrazia bat izateko, herrialde bat subiranoa izateak ez du esanahi demokratikoa denik, baina ez da demokraziarik egongo subiranotasun gabe. Demokraziak herriaren boterea esanahi du eta boterea erabakitze eskubidea da. Baina, egunez egun ikusten dugu estatuek subiranotasuna galtzen dutela, batez ere “finantza merkatuen” alde. Horrez gain, herrialde batzuek beste batzuen subiranotasun kulturala, ekonomikoa edota politikoa mugatzen dute. Inperialismoa izenarekin ezagutu dugu prozesu hori, herrialde batek beste herrialde baten erabakitze eskubidea bahitu egiten du gai batzuetan –edo ia arlo guzietan–.

Kostua da klabea. Horregatik Errusiak gerra lazgarri bat egin zuen Txetxenien aurka heriotza eta suntsipena barreiatuz. Kostuak esplikatzen du Serbiak izaniko jarrera demokratikoa Montenegroko erabakitze eskubidearekin eta gatazkatsua Kosovorekin

Nazioarteko politika adibidea da. Mendebaldeak sistematikoki estigmatizatzen ditu subiranotasun gradu altua duten herrialdeak, berdin du demokratikoak edo autoritarioak izan, zureak egin du hainbat alorretan erabakitze eskubidea egikaritu nahi baduzu, Mendebaldeko interesak kontuan hartu gabe. Horregatik, anti-inperialismoa subiranotasuna errespetatzea da. Baina zein subiranotasun?

Arazoak estatuen barruan ematen dira ere bai. Nahiz eta herrialdea oso subiranoa eta demokratikoa izan, bere mugetan dauden eskualde bat edo batzuen borondate politikoa, kulturala edota ekonomikoa ezabatu ditzake. Kasu horretan litekeena da eskualde batek subiranotasuna bere esku hartu eta erabakitze eskubi-

dea egikaritu nahi izatea. Gehienetan jatorrizko estatuak emango duen erantzuna ezin da aurreikusi bere izaera demokratikoaren arabera.

Aurresanen arabera, egokiena galdera hau egitea da: zein kostu izango du jatorrizko estatuarentzat eskualde baten sezesioak? Zenbat eta kostu handiagoa, orduan eta jarrera agresiboagoa izango du jatorrizko estatuak. Kostua subiranotasun (eragin) terminotan neurtu behar da. Sezesioa bilatzen duen lurraldearen balizko independentziak jatorrizko estatuaren kontrol ekonomiko, politiko edota kulturaletik erradikalki aldentzea ekarriko badu, biolentziazko gatazkan bukatzeko probabilitatea handiagoa da. Horregatik, Mendebalde “demokratikoak” Kieveko estatu kolpea babestu du eta Ukrainako Hego eta Ekialdearentzat erabakitze eskubidea gaitzesten du, are gehiago, zibilen aurkako bonbardaketak bedekatu eta 750.000 errefuxiatu eta milaka zibilen heriotzaren aurrean ezikusiena egin du. Bestalde, hau ez da gauza berria, Palestinan hamarkadak daramatzate horrela.

Beraz kostua da klabea. Horregatik Errusiak gerra lazgarri bat egin zuen Txetxenien aurka heriotza eta suntsipena barreiatuz. Kostuak esplikatzen du Serbiak izaniko jarrera demokratikoa Montenegroko erabakitze eskubidearekin eta gatazkatsua Kosovorekin. Hori bai, mendebaldeko inperioko kide zentrala bazara, Erresuma Batua kasu, badakizu edozein sezesioren kostuak ez duela zertan izan behar handia. Begiratu Irlandari edo Commonwealth-eko estatuei, menpeko lotura politiko, ekonomiko eta linguistikokulturalak mantendu dituzte metropoliarekin. Estatu batzuek beste batzuek baino aldarte demokratikoagoa izango dute, baina barkatu, Eskoziako independentziaren kostua txikia da Kataluniako edo Donbasekoaren alboan. Batzuetan erraza da demokrata izatea zuek independentziatu nahi duena zure hizkuntza, aliantza militarra, moneta, erregina eta hainbat menpeko lotura ekonomiko mantentzeko prest dagoenean. ■





ESPAINIARRREK B PLANA OTE DAUKATE
KATALUNIAN ... ?

... ala hain dira basapiztiak, eta
ez daukate adierazten duten
Asto Plana baizik ... ?

ez dakit zer den kezka garriago ...



Oier Araolaza

DANTZARIA ♦



DANI BLANCO

Ipurbeltz

BELEA IKUSI eta muturra okertu, dena da bat. Zozoa naiz, bai horixe, eta zurikerietan saiatu arren, abilagoa naiz belzten orroa. Hizkuntzalariek deskribatze lane-tara mugatu beharko luketela pentsatzen duenetakoa naiz, eta hizkuntzaren eguneratze, berritze eta sortze lanak hitzunen eta sortzaileen mihi eta teklatuaren esku utzi beharko lituzketela. Hori hitz bidezko hizkuntzari dagokionez. Noski, dantzari ez. Hori beste kontu bat da. Dantzariak eta sortzaileak ezjakinak badira, ezin ba haien esku utzi gure hizkuntzaren –euskara badut aho hizkuntza, euskal dantza dut gorputz hizkuntza– bilakaera eta gain-behera.

Beleok sarri egiten diguzue orro ipurbeltz zozo koitaduoi. Euskal dantzak berri behar direla, eta edozein ergelkeria koreografiko atsegin dut batez *feisbukizatzen* diguzue. Alferrik da sasi-koreografia baten egiturazko ahuldade eta sortzezko bekatuak agerian uztea: “Sustrai eza, inkoherentzia koreografikoa, sintaxi okerra, itxurakeria eta hutsaltasuna, tradizioaren ezagutza ezaren goratzea”. Belearen plastakoak putzada batekin eraitsiko dizu gaztelua: “Ba niri gustatu zait. Zu tradizionalista zara”.

Zozo-aberrian edozein zozok edozein zozokeria asmatzea, eta horrela eraberritzeko hain premia larria duen euskal dantza zaharkitua eguneratzea, eraldatzea, birsortzea bikain iruditzen zaio beleari. Baina eutsi

ondo mokoa bele-aberrian sartzeko tentaldiaren aurrean. Euskararen eremua gauza serioa da, hamaika zaindari zinpekok, osok, urgazlek eta hooliganek babestua: “Mendikleta ez, hori ez dator bat hitz berriak sortzeko hizkuntz irizpideekin”. Eta *trash*. Edozein zozokeria proposatuz gero, Olasagastik letxe aizkoratuko zaitu beleak: “Tradizioan ez da inoiz horrela esan”. Eta kito. Kro, kro... Igela? Zozoa!

Tradizioa. Ja. Zozook erabateko ezjakintasunetik baztertu edo aldatu, eraldatu, berri, berrasmatu beharko genukeena lege ukiezina da ezagutza gainezka duen bele-aberrian. Zozo tradizionalista honek uste du euskal dantza berritzeko, eguneratzeko, sortzeko eta birsortzeko, euskal dantza bera, bere gramatika eta lexikoan, semantika eta morfologian ongi ezagutu beharko genukeela. Ez dugu ezagutzen, ez. Ezta

hurrik eman ere. Beleak uste du bele-aberrian euskararen adina ikertzen eta inbertitzen dela dantzan zozo-aberrian. Dantza ikertzen eta aztertzen dagoen zozo bakoitzeko mila bele daude euskara aztergai eta ikergai dutenak, unibertsitate, akademia, eskola, erakunde publiko, boluntario elkarte, enpresa profesional eta ongintzako fundazioetan. Zozo-dantzariak, onenera ere, atsoitiz eta kanta zahar batzuk ahots inpostatuz deklamatzerira iristen gara. Kro. ■

*Beleak uste du
bele-aberrian
euskararen adina
ikertzen eta
inbertitzen dela
dantzan
zozo-aberrian*



DANI BLANCO



Kattalin
Miner



KAZETARIA

Zifrak

ABUZTUAK ikara eragiteko moduko zifrak utzi dizkigu. Dakigunez, 47 ziren aurreko astean indarkeria matxistak utzitako gorpuk. Dakigunez, bortxatzeko grina maskulinizatuak ez du oporrik hartu. Badirudi inoiz baino lanpostu gutxiago dagoen honetan, gero eta langile gehiago hil direla, asko, gure azpiegitura horiek eraiki lanetan. Gazako arreba-anaien gorpuek Israelek itotzeraino murriztutako lur zati niminoetan lurperatzeko gaitasuna gairiditu dute. Siriako gorpuen zifrek gure adimenean hori bera liseritzeko gaitasuna gairiditu dute; kasik, ustelkeriaz hitz egiten digutenean aipatzen dituzten milaka miloi euroen zifren antzera.

Zifra dantzaren artean, haiek ulertu eta liseritzeko beste batzuk falta ditudala pentsatu dut. Zenbat kondena daude erailketa horiengatik? Zenbat bortxaketa ekiditea lortu dute hainbat andre? Zenbat diru irabazi dute langileak gorpu bilakatzen dituztenek? Zenbat bala eta bonba jaurti dituzte sionistek? Zenbat urte daramatzagu Ekialde Hurbila leher-tzen?

Zifra hutsak omen gara, baina jakin dezagun gutxienez zenbat garen eta zeren kontra dihardugun. Irabazi arte. ■



**Eneko Olasagasti**

♦ ZINE EKOIZLEA

Hiru belaunaldi eta desio bat

IZEN EDO IDEIA horrekin zabaldu da EHUKo Udako Ikastaroetan euskal zineari eskaini zaion tarteak. Euskal txiolarien munduari esker izen dut horren berri. Eta irakurtzen dudanak gogoetarako bidea eman didanez, hona, Zinemaldia gainera erori baino lehen, gaiari buruzko nire ohartxoak.

Aldez aurretik, naziotasuna edota hizkuntza direla-eta, film bati ematen dioten diruari buruzkoa: euskal zinea zer den eztabaidatzen denean, iritzi adina definizio dago, baina nik ikusi eta ikasi dudanez, naziotasuna eta hizkuntza dira gai nagusiak. Normalean diruak hizkuntza markatzen du gainera. Eta merkataritza-ontziekin gertatzen den bezala, baliteke baten bat Panamako banderapean nabigatzea ere.

– 80ko hamarkadakoak dira aro honen hastapen urteak. Poli-milien diruaren mitoaz aparte, sosak Madrildik eta Euskaditik zetozen. Eta zuzendariak, euskal jatorrikoak baziren ere, kanpotik. Olea, Uribe, Ezeiza... gehienak, ezen baziren ere bertokoak, Armendariz, Berasategi. Eta gehienak ere, etorri ziren tokitik joan ziren. Hurrengo hamarkadetan bezala badira ikusezinak ere, Anjel Lertxundi bezala, eta ekoizle batzuk. Eta haiei zor zaie hamarkada horretan ekoiztu zen euskarazko zinearen gehiena. Zinemaldiaren Sail Nagusian Antxon Ezeizaren *Ke arteko egunak* lehiatu zen. Nik figurante lanak egin nituen pare bat pelikulatan.

*80ko hamarkadakoak
dira aro honen
hastapenak.
Poli-milien diruaren
mitoaz aparte sosak
Madrildik eta
Euskaditik zetozen.
Eta zuzendariak,
euskal jatorrikoak
baziren ere, kanpotik*

– 90ekoa euskarazko zinearentzat hamarkadarik eskasena izan zen. Zuzendariak bertokoak ziren eta generoak eta autoretza lantzen hasi ziren. Ulloa, Urbizu, Medem... Baina euskaraz ia ezer ez. Guggenheim Bilbao Museoa egin ondoren geratu zen dirua, Euskal Mediaren bitartez negoziatuak, eta Madrilekoa, berriz ere, izan ziren diru iturri nagusiak. Zuzendari gehienak hemendik joan ziren.

Euskararengatik izan zela esan zuten Ikastaroan, baina garai hartan ez zegoen filmetan euskara babesten zuen araudirik. Nik pare bat pelikula egin nuen eta ez nintzen joan.

– 2000koa hamarkadarik oparoena da. Euskarazko zinearentzat finantzabide lerro propioak sortzen dira eta horrek fruituak eman ditu, hizkuntzaren trataeran isla dutenak. Diferentziaz, euskaraz gehien ekoiztu den garaia da. Euren lana bertan garatu nahi izan duten zuzendariei (Altuna,

Esnal, Garaño, Goenaga, Almandoz...) eta ekoizleei esker. Hogeitaka urte eta gero, berriz ere, euskal film (*Loreak*) bateko protagonistek Sail Ofizialeko alfonbra gorria zapalduko dute. Niri estrenaldian egotea gustatuko litzaidake, alboko atetik sartu behar badut ere.

Eta orain desioa: ez pasatzea beste hogeitaka urte hurrengora arte, eta ni hor nonbait ibiltzea. ■



Olarrondo
JATETXEA

*Toki aparta eta
inguru atsegina*



Muna Lurra kalea, 5 • 20170 Usurbil • Erreserbak: ☎ 943 360 376 / 626 686 036 • info@olarrondojatetxea.com • www.olarrondojatetxea.com

Danele Sarriugarte

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Atarikoa

SELFIE dei niezaioke halaber estreinako zirtako honi, hitz horrek eraman ninduen-eta bestela gogon solte eta konpromisorik gabe zebilzkidan zenbait ideia, erreferentzia eta burutazio teilatu kontzeptual beraren pean ohaidetzera. Azkenean, dena dela, erabaki nuen ezetz, ez bainuen neure burua katramilatu nahi, noizean behin kaiolatik kanpo aske uzten dudana piztia *puretaren* kezkekin (soilik zeharka aipatzea da niretzat ez katramilatzea): matrakari ekin beharko nioke euskarazko baliokide bat topatzeko? Bortxatuegia, akaso? Baina ez al da gehiena artifiziala? Bestetik, *selfie* fenomenoak ez ote doa harago; jendeak ez ote du *selfiea* horren grinatsu onartu ez ezik besarkatu errepre-

sentatzen duelako Ellen DeGeneresek Oscarren sari-banaketan egin zuena, beste hagin zuridun horiekin denekin? Izan ere, ez al ziren *protoselfieak* ere komun domestikoe-tan mugikorra ikusgai egiten zituzten haiek, hainbeste deabrutu ditugun txoniek? Eta zergatik sortu dute ingeles hiztunek *usfie* bezalako munstro bat, eurengan nuen fede linguistikoari traizio eginez?

Selfieak nire bizitzan agertu zirentsuan topatu nuen Jo Spence argazkilaria ingelese, Sant Jordi garai-tsuan izan zen eta salmenta (prezioetan herriko) bat egin zuten Macba museoko dendan. Iaz aholku baliagarriaren bat eman zidaten hiruzpalau irakasleen arteko sinpatikoenak esana bueltaka nerabilen kaskoan: irakur genitzala gure bidera ateratako liburu estrainioenak. Horrela eraman nuen Spencei buruzkoa poltsan. Portadan artista bera azaltzen da, begirada deskribatzeko nahiko zail batekin, etsipenaren eta duintasunaren artean

kokatuko nuke nik; ilea atzean lotuta, izara moduko batekin jantzita dutxa ostean toallak gorputzari atontzen dizkiogun gisan, bularren bueltan eta goialdea biluzik; ezker lepautaiaren azpian X bat errotulagailu beltzez.

Macban egin zuten erakusketa bateko katalogo nahiko osotua da, Jorge Ribalta kuradorearen hitzaurrearekin. 60-70-80 hamarkadetako argazkigintza postmodernoren mugimenduan sartzen du Ribaltak Spence, errepresentazio zapaltzailearen gatazkaz eta ondorioz auto-errepresentazioaren aldeko hautuaz esaten dituenak interesatu zitzaizkidan gehien. Alegia, (motzean eta kimatuta) Spence deseroso sentiarazten zuela erretratugilearen (subjektu) eta erretratatuaren (objektu) arteko jauziak; langileei buruzko dokumentalen filmaketa moduek, kasu, ez ote zituzten, hain justu, salatu nahi zituzten desorekak erreproduzitzen? Spencek erabaki zuen kameraren aurrean eta atzean egotea, bere errepresentazioaren jabe izatea.

Adibideak ez dira gutxi (sorkuntzarako nor bere burua erabiltzea da hemen lotura, azken buruan), argazkilarien artean Cindy Sherman, Claude Cahun, baita Vivian Maier ere aipa litezke; filosofoei helduta nahiko zabaldua dago Sigmund Freud zenbait ideiak Sigmund txikia bera esplikatzen dutela orobat; performance-egileekin oso ukigarriki ikus dezakegu Regina José Galindo hozkailuan edo Itziar Okariz publikoki txiza egiten. Eta, noski, artisten artean Frida Kahlo auto-erretratuen erreginetako batek esan omen zuen bere burua margotzen zuela etengabe horixe zelako hobetoen ezagutzen zuen gauza.

Ni-ismoa hartzen dugu ahotan ñabar-dura negatiboz tantaka, besteenganako interes faltaren adierazgarri bailitzan, baina norberarenetik kritikoki abiatzea ez ote da besteak modu eurentzat alienantean ez eraikitze (alegia, Bestea ez eraikitze) alternatiba egingarrietarik bat? ■



Antton Olariaga



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com

«Maurizia dantzatokiraino eramán nahi dugu»

Tiburgetik (Herbehereak) eta Calafetik (Katalunia) etorri berritan harrapatu genuen Ines Osinaga, Goseko abeslari eta trikitilaria. Hamar urte bete ditu taldeak eta bost disko ditu kalean, bi urtetik behin autoekoitziak, “zuk zeuk egin” filosofiari jarraituz.

| MYRIAM GARZIA |

Jaialdi erraldoietan jardun duzue Katalunian eta Herbehereetan. Zer-nolako esperientzia izan da horrenbeste jenderen aurrean jotzea? Zer giro?

Geurea bezalako talde batek har dezakeen saririk onena da. Muga zeharkatzea da, eta apurto beharreko mugarik ere badela frogatzen duena. Hasieratik eduki dugu kanpora ateratzeko grina eta gogoia. Euskaraz sortu eta kantatu arren, badugu zer kontatu bazter hauetatik harago.

Katalunian sarritan jo izan dugu, baina Herbehereetan lehenbizikoz izan gara, eta beti da erronka. Bueltan gauza bera pentsatzen dugu beti: euskaraz sortzen duguna kanpoan zabal daitekeela. Euskaraz eta Euskal Herrian sortzen dena, atzerrian ulertu daitekeela eta ulertu nahi dutela sentitu dugu. Mugak jartzen dituen ez da hizkuntza. Konplexuak alde batera uzteko garaia da.

Askotan esan duzu Maurizia gustuko duzula, Prodigy bezala, eta horrek naturalki eramán zaituela Gosen egiten duzuna egitera. Horiek sustraiak baldin badira, non daude ortzimugak? Norantz zoazte?

Norabidea argi daukagu. Ez, ordea, non amaituko dugun. Ia hamar urteotan gauza mordoa gertatu zaizkigu, gehienak espero ez genituenak, bila joan gabe etorri direnak.

Gure nahia, gure obsesioa batzuetan, proposamen aparta egitea izan da aldiro, garena izateari utzi gabe. Hori argi izanik, edozer gerta liteke bidean. Non bukatuko dugun jakinez gero, ez litzateke hain dibertigarria izango.

Musikazalea zara? Zein musika entzuten duzu aspaldi honetan?

Ezin dut ulertu musikazale ez den musikaria. Musikari garen guztiok dakigu zer den oilo ipurdia jartzen dizun hura entzutea. Ezin da beste modu batera izan.

Denetik entzuten dut, boladak izaten dira, baina momentu bakoitzean, eskuartean dudán hori behin eta berriz asetu arte entzuten duten horietakoa naiz. Azken aldian, elektro swing-ari heldu diot bete-betean.

Zenbat eskusoinu dituzu? Beste musika tresnarik jotzen duzu?

Kontserbatorioko garaian soinu handia jotzen nuen. Txikia ezagutu eta errazagoa, arinagoa, praktikoagoa baita alaiagoa ere badela deskubritu nuen arte. Panderoa ere oso gustura jotzen dut.

Bi soinu ditut, behar ditudan bi horiek, ez naiz fetitxista. Hori bai, besteren bat behar dudanean, badaukat nori eskatu.

Trikitixa azken muturrera eramanez, zerbait erradikala egiten duzula uste duzu?

Erradikala? Defini dezagun zer den erradikala izatea Euskal Herrian...

Gosen hasieratik eduki dugu argi zer egin nahi izan dugun: trikitia eta elektronika erabili kantuak egiteko, eta kantuok erabili gauzak kontatzeko. Tradizioa ordenagailu bati entxufatu, eta betiko hauspoarekin jolastu, musika egiteko modu berri bat aurkitu arte. Mendeak dituen tresna batek, traizioan erori gabe, XXI. mendeko musika ere sortu, interpretatu eta zabaldu dezakeela erakutsi nahi izan dugu. Maurizia dantzatokiraino eramán. Gaur egun ordenagailua dugu eguneroko tresna alor gehienetan, eta naturala da musikan ere hala izatea. Elektronika beste

“Fandango eta arin-arina zer den ez dakienak ez gaitu hain arraro begiratzen”



instrumentu bat da, beste baliabide bat esateko daukaguna esateko. Eta asko dago esateko, bai horixe! Egunkariak irakurtzea besterik ez dago horretaz jabetzeko.

Trikitiaren biziraupena bermatzen du musika tresna honen etengabeko eguneratzeak? Berritzeko tradizioetik aldendu behar?

Trikitiak biziraungo du, hala egin behar badu. Ez du salbatzailerik behar. Izatekotan, trikitia izango da gure biziraupena bermatuko duena.

Musikak gizartearen isla behar du izan, gaurko musikarik egiten ez badugu, biharkoek ez baitute atzoko musikarik izango.

Zerbait asmatu duzue?

Asmatu? Dena dago asmatua! Egia da lehen-bizikoak izan garela trikitia eta elektronika nahasten euskaraz kantatuz, baina gure zilborretik harago begiratz gero, ez da hain aldrebesa egiten duguna. Mundu zabalean makina bat talde dago bateria-baxu-gitarra ez den beste formazio batekin. Folklorekeria alde batera utziz gero, akordeoi diatoniko txiki bat jotzen dugu, dantzarako erritmoen gainean. Fandango eta arin-arina zer den ez dakienak ez gaitu hain arraro begiratzen.

Euskal talde askotan ere badarabilte soina, bakoitzak bere erara egiten du. Protagonista izaten da kasu askotan. Nola definituko zenuke trikitia? Erregistro asko ditu?

Orain modan daude trikiti erregistrodunak, bai, baina nireek ez daukate... kar kar.

Trikitia zer den? Geure egin dugun akordeoi diatoniko txiki bat. Hortik aurrerako pisu emozional guztia geroen errua da, ez instrumentuarena. Normala da trikitia euskal talde askoren parte izatea, eta baita bakoitzak bere erara erabiltzea ere. Eskerrak horrela

"Elkarriketetan abeslariaren generoari buruzko galderarik erantzun behar izango ez dugunean hasiko gara pentsatzen zerbait aldatu dela. Ordurarte, egiteko asko dago".

den! Garrantzi handiagoa dauka gezia jaurtitz duenak geziak berak baino.

Frontwoman izateak beste irudi estetiko bat ematen dio Goseri?

Goseren nortasunaren parte da, noski. Goseko abeslaria emakumea ez balitz, Gose ez litzateke Gose izango. Ezta taldean bateria bat balego ere. Edo trikitia beharrean biolina joko bagenu. Ez da estetika kontua, nortasun kontua baizik. Gosen kantatzen ditugunak emakume baten ahotik esateak mezuari beste zentzu bat eranstean diola konturatzen gara, gustatzen zaigu eta hortaz baliatzen gara. Aurrean emakume bat izatea, eszenatokian aktiboa den eta ezarritako arauekin bat ez datorren rola betetzen duena ere bada Gosen nortasunaren parte. Hori ere aldarrikatzen dugu.

Emakume gehiago agertzen ari dira euskal eszenan ala daudenak agerikoagoak dira egun?

Zenbat aldiz galdetu ote didate hori! Ez al da ba emakumezko bat lehen lerroan ikustera batere ohituak ez gaudenaren seinale? Elkarriketetan abeslariaren generoari buruzko galderarik erantzun behar izango ez dugunean hasiko gara pentsatzen zerbait aldatu dela. Ordurarte, egiteko asko dago.

Musikazale, musikagile edo musikari, denek dute erro bera. Zer ematen dizu zuri musikak?

Ez dira gauza bera, inondik inora. Eskerrak badauden musikari ez diren musikazaleak... Badira urte batzuk musikaren alde apustua egin nuela bizitzan. Bizitzeko modu bat da. Ez naiz musikari izatetik bizi, baina musikari izateko bizi naiz. ■



Sortzaile osoa

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak (EHAE) bultzatutako Bilbo Bizkaia Architecture (BIA) plataformaren eskutik egingo da Bilbon lehendabiziko BIA Urban Regeneration foruma, irailaren 4tik 28ra. Bizkaiko eta Bilboko hirigintza dinamizatzea xede duen plataformak hainbat ekitaldi antolatu ditu. Besteak beste, erakusketak, film zikloak, lehiaketak, haurrentzako tailerrak edo arkitekto ezagunen eskutik egingo diren bisita gidatuak. Erakusketen artean ikusgarrienetakoa, Imanol Ordorika Bengoetxea 36ko Gerran Mexikora erbesteratu zen arkitekto lekeitiarraren atzera begirakoa.


| MYRIAM GARZIA |

HIRU SEME-ALABEN artean zaharrena zen Imanol Ordorika Bengoetxea (Lekeitio, 1931 – Mexiko Hiria 1988). Nile eta Jokin zituen senideak. Gurasoak, berriz, Joseba Ordorika Asua (Lekeitio, 1896 – Mexiko 1973) eta Balbina Bengoetxea Alzola (Boisse, AEB, 1906 – Mexiko 1999).

Aita, Lekeitioko merkataritza itsasontzie-tako kapitaina, 1939an heldu zen Mexikora, hark gidatu baitzuen Vita, II Errepublikako gobernuko ondasunak Mexikora eraman zituen belaontzia.

Lekeitiko bonbardaketaren ostean, lehenik Bedaronako baserrian babestu ziren ama eta seme-alabak, gero Donibane Lohizunera egin behar izan zuten ihes (Lauaxetak lagundu zituen, Nile bere besoetako alaba baitzen). Handik gutxira, Mexikora jo zuten haiek ere, Bordele-tik abiatuta. 1939ko azaroaren 22an heldu ziren. Imanol Ordorikak 8 urte zituen.

Inoiz ez zituen Euskal Herriarekiko loturak eten. Ohikoa zen familia Mexikoko euskal etxean ikustea, bertako zuzendaria izan baitzen aita. Imanolek, Jokinek eta Nilek Mexikoko Unibertsitate Autonomo Nazional-eko Arkitektura Eskolan egin zituzten arki-tektura ikasketak.



17 urte besterik ez zituela ekin zien ikaske-tei, eta berehala nabarmendu zen, hango maisu handien laguntzaz.

1956an, Mexikon bizi zen beste euskaldun batek, Anton Elorriaga enpresariak hain zuzen, eta Mexiko Hiriko Majestic hotelaren jabeak, Acapulcoko Elcano Hotela egiteko enkargua egin zioten Imanol Ordorika gazte-ari. Eraikin modernoa eta funtzionala egin zuen. Beste batzuk heldu ziren haren atzetik: La Lagartija etxea, Mexikaliko Ospitalea, Her-mosilloko Banco Mexicano de Occidente erai-kina, Mexiko Hiriko Honeywell, eta Avenidas Insurgentes kaleko beste bulego eraikin bat.

Hotelak, hezkuntzarako eraikinak eta etxaldeak egin zituen batik bat. Erakusketako arduradun Ibai Gandiagak dioenez, “Garaio-tan Europako abangardiak hainbat bide berri zabaldu zituen porlana eta altzairua era-



biliz. Teknikaok Bigarren Mundu Gerraren ondoren garatu ziren. Ordorikaren lengoaia isilagoa bazen ere, abanguardia horren espresibilitatea bereganatu zuen gerora”.

Euskal sortzaileekiko lotura

Margolaria, eskultorea eta diseinatzaile industrialia ere izan zen Imanol Ordorika. “Pertsona bizia zen, artearen bila aritzen zen. Ordorika ez genuke besterik gabe arkitektotzat hartu beharko, sortzaile oso bezala baizik, hainbat bidetatik bilatzen zuelako artearen espiritutasuna” azaldu digu Ibai Gandiaga arkitektoak.

Francoren diktaduraren ostean, Imanol Ordorika Lekeitiara itzultzen zen ahal zuen guztietan. Koldo San Sebastian kazetari eta Ordorikaren ilobak azaldu digunez, “hura euskalduna zen, baina mexikar izateari utzi gabe, eta halaber, mexikarra ere bazen, euskalduna izateari utzi gabe. Esker onekoa zen erbestean hartu zuen herriarekiko”.

Euskal Herrira itzultzen zen bakoitzean euskal sortzaile eta arkitektoekin biltzen zen. Oteiza, Txillida, Basterretxea, Larrea... Jorge Oteiza bere Mexikoko etxean bizi izan zen

Goian, ezkerrean, Imanol Ordorika Bengoetxeak arkitekto gisa egindako lehen lana: Acapulcoko Elcano hotela.

Goian, eskuinean, bere margolanetako bat. Hautsa, marmola, hartxintzarra, egurra, metala, olana eta beste hainbat material nahastu ohi zituen. Eskuinean, behean, Jorge Oteizarekin.

denboraldi batez, “eztabaidan etengabe, baina ondo pasatzen zuten biek”, gogoratu du Koldo San Sebastianek.

Euskal Herrian ez dugu Imanol Ordorikaren eraikinik, baina badira zenbait margolan. Bata, Santi Brouardek Lekeitioko ikastolara-ko eskatutako margolana. Bestea, Bilboko Arte Ederretako Museoa dagoen bat izan litekeela uste da.

Ikasketak egin zitueneko arkitektura eskolan irakasle aritu zen 32 urtez, eta Mexiko Hiriko arkitektura bulego garrantzitsuenetako bat gidatu zuen. Bestetik, Mexikoko Arkitektura Akademiako katedraduna izan zen. Hura zen akademian sortzez mexikarra ez zen bakarra. ■



CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com


Moyua
 hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)
 ☎ 943 783 447 / 617 442 466
mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-guipuzcoa.com

Helduen Literatura

*Hobe kontatzen
ez badidazu*
Hainbat egileren
antologia.

Pasazaite, 2013



Material ona

AURREKO BATEAN Gerardo Markuleta itzultako poeta katalanen antologiaren berri izan genuen kritikarako tarte honetan eta oraingoan ere berak itzultako ipuin-idazle katalanen antologia batekin gatzokizu. Euskal Herria-Katalunya konexioa, *again*. Aritz Galarragak aukeratu eta hitzaurrea egin dio ipuinetako baten izenburua izenburu orokorrerako duen liburu honi: *Hobe kontatzen ez badidazu*. Ipuinei gagozkiolarik nahiko iradokorra. Bertan bost idazleren narrazioak bildu eta euskarara ekarri dizkigu bikote honek, Galarragaren arabera, berak idatzi nahiko lukeen ipuin liburu osatuz. Orotara hamalau narrazio topatuko dituzu Pasazaite argitaletxeak plazaratutako liburu honetan, eta ez zaituzte epel utziko.

Alde literariotik narrazio bati eskatu ahal zaiona betetzen dute: beste bizitza batzuk ezagutzeko aukera eta pertsonaia batzuekin identifikatzekoa. Zeinekin, irakurle bakoitzaren esku. Ipuinak oso ondo idatzita daude; tentsioa primeran mantentzen dute hainbatek eta espero ez duzun amaiera ere badute zenbaitek. Ia guztiek txertatzen dute elementu ezezaguna egoera ezagun batean, eta istorioaren garapenean asebeteta uzten zaituzte nagusiki. Honez gain, Anjel Lertxundik bere *Berria*-ko zutabea duela gutxi esan bezala, aurreko ezaugarriez aparte bizitzan izaten diren gai ilunei argia ematen zaio tarteka lan honetan. Hori izan da niretzat meriturik handienetako bat antologia honetan. Itzaletan eta isiluneetan galtzen direnak begien parera agertu izana.

Alde pedagogikotik eta alde pertsonaletik ere zerbait esan nahiko nuke. Lagun batek liburu bat gustatzen zaionean “material ona” dela esaten du. Bera irakaslea da eta hori esatean adierazi nahi duena da bere ikasleekin klasean gustora landuko lukeela lan literario hori, haiekin komentatu, haiekin partekatu. Hori da liburu hau irakurri ahala behin eta berriro gertatu zaidana. Irakasle naizen aldetik ipuin batzuen irakurketa amaitzean ikasleekin irakurtzeko eta debatitzeko gogoia piztu zait. Baina baita lagun batzuei oparitzekoa ere. Niretzat, ipuin batek, eta literaturak oro har, barrua mugiarazi behar dizu, izan pentsamendua, sentimendua edo gorputza, eta interplatuta sentitu behar zara. Liburu honetako narrazio askorekin gertatu zait hori. Orain, zure txanda da, ea zer pizten dizuten zuri. ■

Amaia Alvarez Uribe



Perla apartak, hitz gutxitan

AFORISMOAK gustuko ditugunoi bazka polita eman digute hilabeteotan. Uda aurretik Karlos Linazasororen *Alferrik ez balitz* (Elkar, 2013) bilduma heldu zitzaigun eskuetara. Mila aforismo batu zituen egileak okasiorako, 2009-2013 artean onduak. Azken seiak nabarmendu ditu editoreak, liburuaren atzealdean. Esate baterako, “Izuz akabatzen nago: ideia propio bat izan dut”, edo “Hasieran Hitza zen. Gero, apaizek mundua hiztegi-zute zuten”. Neronek, aldiz, hasierakoak nahiago. Halaxe dio lehenak: “Batuetan, aforismo bat idazteko nobela bat urratu behar da”.

Egunotan, berriaz, *Gerrari tiroka* helarazi digu Joseba Berriotoak. Gerraren aurkako serbiar aforismoak dira liburuan bildu direnak, Hasier Agirrek itzuliak. Horietarik asko, benetako bonbatzat hartu ditut nik —barka definiziorako irudimen eskasa—: “Serbia hilobiz beteta dago. Gu gara gizakiaren neurriara eginko herri bakarra!”, “Herriak koartada ezin hobea dauka. Ez da inoiz agintariek egon”, “Krimenaren katea bitan zatitu da. Erdi bat kartzelan dago, bestea parlamentuan”. “Ez iezadazue etsipena kendu! Daukadan guztia da”, “Egia da heroi batzuek gerra-krimenak egin dituztela, baina borrokaren beroan betiere”.

Arantzatzat bat utzi dit liburuak: zenbait esaldi ez ote diren euskara baldar xamarrean pasatu, edo erabat biribildu gabe. Itzulpenaren ajeak, behar bada. Bestela, bilduma bikaina da. ■

Garbine Ubeda Goikoetxea



Garai interesgarriak. Begirada independentea.



argia

Harpidetza
etxean jaso nahi dut

ARGIaren urte osoko harpidetza
(46 zenbaki, 11 Larrun, Urtekaria)

Hego Euskal Herrian 12 € hilean
Iparralde Euskal Herrian 15 € hilean

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefona

e-posta

Kontu zenbakia (24 digitu)

☐ Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

Postaz bidali edo 943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU



ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELOPAREA
HEMENDI

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Euken Ostolazak esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


7								
1	5	2						
4	9		1	2		6	8	7
		5		7	6	1	9	8
		1	9		4	7		
9	6	7	2	1		4		
3	1	9		6	2		7	4
						8	6	9
								2

Zaila

7	8	3						
				9				
2		1	8					3
				8		9	1	
		8		4	2			
3	4			9				
6				8	9		5	
			2					
					1	7	6	

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



1.-Adore. 2.-Astiro. 3.-Altzo. 4.-Modura. 5.-Nolatan.

Kike Amonarrizen umorea

Urduri



Bikotea ohean:

- Urduri?
- Bai, pittin bat.
- Zure lehen aldia da?
- Ez, askotan urduri-tzen naiz.



Soluzioak

Erraza

7	8	3						
				9				
2		1	8					3
				8		9	1	
		8		4	2			
3	4			9				
6				8	9		5	
			2					
					1	7	6	

Zaila

7	8	3						
				9				
2		1	8					3
				8		9	1	
		8		4	2			
3	4			9				
6				8	9		5	
			2					
					1	7	6	

Puzzlea:

“Orain normalagoa da, baina duela hogei urte kontratenortik ez zegoen hemen, jendeak ez zuen ezagutzen ahots tipo hori, ez zen ausartzen.”

5x5:

1. Kemen. 2. Emaro. 3. Magal. 4. Erra. 5. Nolaz.

Burua itzali eta begiak piztu

ARGIEN MENDEA izan zen XVIII. mendea, ilustrazioarena, arrazoiarena... Baina garaia tituluari aipatu arren, bisitariak izenburu nagusiari erreparatu besterik ez du erakusketako argiak zetazko oihalen distiraz harago ez doazela konturatzeko. Garai hartako jantzien bilduma da, baina jantzi gutxi batzuen edo, hobeto esanda, soilik gutxi batzuek eraman zitzaizkion jantziak, eliteena, nobleena. Beraz, garaiko gizarte osoaren isla ere ez du jasotzen. Esperientzia estetiko xaloa, baina bikaina, eskaintzen du, ez gehiago, ezta gutxiago ere.

Sartu eta berehala boli koloreko *txupa* bat jarri dute, maukarik gabeko zetazko jaka brodatua. Lepoaldean, atzean, *THE[ât]re V. Déjazet* hitzak ditu idatzita eta alboko paneletan txutxu-mutxu gosea asetzeko nahi adina informazio topatuko du bisitari kuxkuxeroak. Virginie Déjazet (Paris, 1798-1875) ospe eta sona handiko aktorea izan zen. Besteak beste Diderot, Rousseau eta beste filosofo batzuen testuak antzeztu ohi zituen XVIII. mendeko gizonezko jantziak soinean, erakusketa hasierako *txupa* horien artean. Ziurrenik Santiago Arcos Ugalde (Santiago de Chile, 1852 - Donostia, 1912) margolaria ezagutu zuen Parisen eta haren bidez iritsi da pieza erakusketara. Parisen bizi ondoren, Arcosek aldi luzeak eman zituen Urruñan, Hernanin eta Donostian. Gipuzkoako hiriburuan hil zen 1912an. 1940ko hamarkadan haren alargun Concepcion Cuadra Viterik senarraren jantzi bilduma San Telmo Museoari eman zion dohaintzan eta orain bilduma horrek osatu du nagusiki erakusketa.

Zergatik bildu zituen XIX. mendeko margolariak aurreko mendeko luxuzko jantziak? Batetik Santiago Arcos margolari kostunbrista zen eta artista horiek, horretarako nahikoa baliabide izanez gero, antzinako



Frivolité.

XVIII. mendeko jantziak,
San Telmo Museoren
bilduma

Non: San Telmo Museoa,
Donostia.

Noiz: irailaren 28a arte.

jantziak, apaingarriak eta objektuak erosi ohi zituzten, gero objektu horiek mihisean xehetasun osoz irudikatzeko. Gainera, XIX. mende amaieran, antzinako jantzien dantzaldiek oihartzun handia izan ohi zuten garaiko eliteen artean. Arcosek dantzaldi horietako askotan parte hartu zuen, baita baten bat antolatu ere. Itxuraz, dantzaldi horietan jantzietan asmatzeak gorespina zekarren eta hautu okerre, aldiz, kritika latzak.

Erakusketako aleak ikusita, ziur Arcos-Cuadra senar-emazteek bete betean asmatzen zutela.

Tafeta, satina, brokatua, damaskoa... orotariko zetazko oihalez eginak dira jantziak, gehienak brodatu aberatsez apainduak. Pieza batzuek irudi apaingarri soilak dituzte brodatuta, baina brodalan gehienak oso konplexuak dira. XVIII. mendearen amaieran, esaterako, opera edo artelan arrakastatsuenen eszena osoak oihaletan harilkatzea modan jarri zen. Eta bezeroen gustu exotiko eta bereziei ere erantzuten zieten jostunek. Erakusketako jaka luze batean, adibidez, pieza osoa hartzen duten adar kiribiletan, tximino, indioilar eta katu bana daude xehetasun osoz brodatuta. Rococo garaian hain gustuko zituzten kolore pastel apaletakoak dira jantzi gehienak eta zilar nahiz urre kolorearen distira maite zutela ere nabari da, baina badaude kolore biziko pieza berriagoak ere, lore gorritz jositako frantses erako soineko beltza kasu.

Mamiaren erosotasuna kontuan hartzen ez zuten azal ederrak dira. Erakusketaren gaia arinkeria da, baina jantzi horietan sartzea astuna izango zen gero, emakumeentzat batez ere. Eliza katolikoaren goikarguentzat ez hainbeste. Jantzi erlijiosoei eskainitako atal bereziko piezak lasaiagoak dira, erosoagoak, horiek soinean zeramatzatenei pobrezia botoaz oroitzeak deserosotasuna sorrarazten ez bazien behintzat.

Eta jantziez gain badira bestelako objektuak: garaiko koadroak, aldizkariak, poltsak... Baita abaniko ederrak ere, luxu eta gehiegikeria katolikoak sorrarazitako gorpuzaldi txarra haizatzeko eta giro xalo, arin, arduragabeari eusteko lagungarri. ■



Nagore Irazustabarrena

Death Valleyko harri ibiltarien misterioa argitu da... erdizka

PIRATE SCOTT-CC BY SA



KALIFORNIAKO Death Valley haranean bada Racetrack Playa izeneko laku bat, normalean idor badago ere aldiro urez estaltzen dena. Berriro lehortzean, bertako harriek hainbat metroko bidaia egiten dute, arrasto garbiak utziz. Gertakaria azaltzeko hipotesi ugari eman izan da.

Azkenik, misterioa –haren zati bat– argitu dute bi ikerlari estatubatuarrek. Orain bi urte hasi zuten ikerketa, eta fruitua gutxien espero zuten bidetik iritsi zaie. 2011n hain-

bat harri markatu zituzten, eta 2013ko abenduan harri horien posizioa ikustera joan zirenean, lakuaren zati batean izotz geruza mehe bat zegoela ohartu ziren. Hasieran ez zioten eman garrantzi berezirik, baina goizaldean, bertan lo egiten ari zirela, hainbat kraskatako entzun ondoren ulertu zuten misterioa. Goizeko eguzkia izotza urtzen hasten bazen, eta une horretan haizea baldin bazegoen, harriak pixka bat mugitu egiten ziren. Fenomenoa askotan gertatuz gero, harrien arrastoa metro batzuetakoa izatera ailega zitekeen.

Harrietako batek 224 metroko bidaia egin zuen bi urtean, eta beste bat higitzen ari zela filmatu zuten. Hala ere, plazartutako hipotesiak ez omen du erabat balio ikerlariak markatuta zituzten harri guztien higadura azaltzeko. Beraz, misterioa ez dago erabat argituta oraindik. ■



Arau berriak EBko autoen emisioetarako

STEEVEN1-CC BY



IRAILAREN 1EAN Euro 6 araua sartu zen indarrean Europar Batasunean. 2009an Euro 5 ezarri zuen Europako Batzordeak: gasolinazko ibilgailuei oso muga zorrotzak ezarri zitzaizkien karbono monoxido, hidrokarburo eta nitrogeno monoxido emisioei dagokienez.

Oraingoa diesel motorrei eragingo die araudiak. Batez ere, mugak jarriko zaizkie nitrogeno monoxidoari eta haren eta hidrokarburoen arteko nahasketari: kilometroko 180 miligramotik 80 miligramora eta 230etik 170erakoak izango dira, hurrenez hurren, jaitsierak.

Esan gabe doa neurri horien bidez hirietako airearen kalitatea hobetu nahi dela, baina horretarako egungo ibilgailuen parteketa berri beharko da. Alegia, auto zaharrenak –eta hortaz, kutsatzaileenak– zirkulaziotik kendu. ■



Ur lurrinak berotegi efektua areagotzen du

Troposferaren goialdean gertatzen ari den ur lurrin kopurua- ren hazkundeak berotegi efektua uste baino gehiago areagotzen duela adierazi dute Hego Korea-ko eta AEBetako hiru unibertsitatetako ikerlariak, elkarrekin egin duten azterlan baten ondorio modura.

ttiki.com/79000
(Gaztelaniaz)

Gehiegizko pisuaren aurka, lapikokoa

Egunero babarrun, ilar, txitxirio edo dilista plater bat jateak ase- bete egiten du, eta horrek pisua- ren kontrol egokiagoa egitea errazten digu. Hala ondoriozta- tu dute behintzat Torontoko (Kanada) Unibertsitateko Medi- kuntza Fakultatean egindako ikerketa baten ostean.

ttiki.com/79001
(Gaztelaniaz)

Ebolaren aurkako gerra galtzar, Mugarik Gabeko Medikuen ustez

Mugarik Gabeko Medikuek elkarteko buru den Joanne Liu doktoreak Nazio Batuetan adie- razi berri duenez, ebola epide- miari estatuek emandako eran- tzuna oso eskasa izan da, eta horren eraginez gero eta zaila- goa izango da gaixotasunaren aurkako borrokan aurrerapau- soak egitea.

ttiki.com/79002
(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Ur beroaren poltsa

PINU, IZEI ETA ALERTZEETATIK erretxina. Haien erretxinatik eta besteenetik: kolofonioa, brea, bikea, berniza, intsentsua, uia, itsasgarria, perfumea, turmentina, urtzailea, sits eta pipientzako uxtailea, desodorantea, baltsamoa eta gantzugailua, arazgarria, kautxua, hulea, golf pilota eta makila, jostailua, borragoma, pneumatikoa, arropa iragazgaitza, Arabiako goma, kosmetikoa, koloregaia, grisalla, ardoa argitzekoa, jakien lurringai eta egonkortzailea, botika, txigoma, gozokia, litografia, zigarro paperen eta zigiluen goma, haxixa nahastekoa, material piroteknikoa, arrantzarako eta gezienezako pozoia, kable elektrikoen isolatzailea, letaginen sustraien osagarria, intsektizida, biska eta lika, opioa, morfina, kodeina, tebaina, papaberina, noskapina, oripabina, garatxoak herpesak eta maskurrrak kentzekoa, lastaira, burkoa, tiritia, esparatrapua, izotz aurkakoak eta hozgarriak, gomazko eskularruak, zinta itsasgarria, preserbatiboa, oinetakoen barne zola, bainujantzia eta bainutxanoa, tenis pilota, ping-pong sarepala, eskitarako betaurrekoak, ur beroaren poltsa, puxika, aulkia, zela, margoa, transmisio uhala, gomazko titia, urpekarri jantzia, alfonbra, edukiontzia,



ANTRAMIR-CC BY SA

Erretxina biltzeko ontzia.

bizikleta gupil zorroen partxea, flotagailua, grafikagintzarako mantila, heroina, katiuska... Zenbat hitz landareren baten izerdiari lotuta! Zenbat bizipoz eta min! Bainujantzia, ur beroaren poltsa, txorietako biska, borragoma, txigoma...

Landareari zauria egin eta isurkina biltzen dugu. Zauria ixteko jariatzen du, zauritik sor daitezkeen kalteak eragotzi nahi ditu. Hortik izerdiak gatzatzeko duen joera. Gatzatu, gogortu eta erretxina eginda itxi. Kaltea eragin

dezaketen mikroorganismoak atea itxi eta orbaintzea erraztu. Bestetik, landare askoren izerdia pozoitsua da. Kosk egin eta zauria egingo liokeen animalia ere atzeratu egiten du. Itxuraz, horiek dira izerdi batzuk erretxinatsu izateko arrazoi nagusiak.

Guk, hala ere, zauria ixteko jariatuko duen horren bila, ebaki egingo dugu. Izan ere, zigarro-papera itsasgarria behar dugu! ■



Irakurleak galdezka

Kaixo. Gorosti bakar bat landatzekotan gabilta, eta jakin gura nuke ea bizitzeko, hazteko, arra bada, landare eme baten beharra ote duen eta alderantziz. Emea izatekotan, arrik ez izanda, aterako lituzke bolatxo gorriak?

Akaso hobe litzateke ar bat eta eme bat ipintzea? A, eta gorostiaren fruitu gorri horiek, pozoitsuak dira?

Susana Uribetxeberria (Oñati)

Kaixo Susana. Gorostia espezie dioikoa da, hau da, batzuk arrak eta besteak emeak dira. Hazi eta bizitzeko, bakarka, ederki moldatzen dira. Hazteko ez dute elkarren beharrik. Heldutasunean biak loratzen dira. Arraren loreak polena hedatuko du, eta emearen lorea ernaldutako beharko du. Ondoren, arraren lorea ihartu eta erori egingo da; emearenak pipitta gorria ekarriko du, barruak haziak izango dituen. Emeak arraren beharra

du, baina ez du derrigor aldamenen izan behar. Loreok nektarra dute, batetik bestera polena garraiatuko duten intsektuak erakartzeko: erleak, liztorrak, euliak, tximeleta txikiak... Hala ere, onena biak jartzea da. Bereizten ikasiko duzu, hazkundera duten aldea, loreetan...

Pipitta gorriak toxiko arinak direla esan ohi da. Tokikotasuna, badakizu, dosiaren arabera da. Toxikoa bezain sendagai dira. ■

Balkanetako Bartzelona Berria

NATHANIEL DANCE-HOLLAND



Bartzelona Berriko planoak. XVIII. mendean mila migratzaile katalan hiri berria eraikitzen hasi ziren. Baina gerra eta izurria medio, proiektuak hiru urte besterik ez zuten iraun.

MADRIL, 1700EKO AZAROAREN 1A. Karlos II.a Espainiakoa ondorengorik gabe hil zen eta Europako potentziak hark uzitako tronua lortzeko lehiatzen hasi ziren: batetik, Filipe Anjoukoa borboitarra, Frantziaren babesa zuena, eta bestetik, Karlos artxidukea, Habsburgo etxekoa, gainerako potentziek osatutako koalizioaren hautagaia. Ondorengotza Gerra 1701ean hasi zen eta Aragoiko Koroaren lurraldeak artxidukearen alde lerratu ziren, foruak galtzeko beldurrez eta borboitarren absolutismoa saihestu nahian. Baina gerra galduko zuten, 1713an, Utrechtoko Ituna medio, Filipe Anjoukoa (Filipe V.a) Espainiako errege izendatu baitzuten. Bartzelonak 1714ko irailaren 11 arte eutsi arren, borboitarren agintea ere hirira iritsi zen azkenean.

Beste hainbat gatazkatan bezala, galtzaile askok sorterrria utzi behar izan zuten, borboizaleen errepresioetik ihesi. Baina nora joan ziren Bartzelona eta inguruetatik ihes eginda ko migratzaile katalan haiek?

Logikoena Habsburgo etxearen kontrolpean zeuden lurraldeetara jotzea zen: Napoles, Flandria, Sardinia, Sizilia, Austria, Hungaria... Baina 1734an Filipe V.ak Napoles eta Sizilia birkonkistatu zituen eta bertan babes hartutako katalanek berriro ihes egin behar izan zuten, oraingoan Vienara. Gehienak jatorri apalekoak ziren eta, baliabide eta bizibiderik gabe, kaleetan alderrai biziraun zuten.

Vienako agintariek, kaleak “garbitzeko” irtenbideren baten bila, katalanak trabarik egingo ez zuten tokiren batera bidaltzea erabaki zuten. Aukeratutako kokapena Otomandar Inperioari kendu berri zioten lurraldea izan zen, egun Zrenjanin dagoen ingurua, Belgradetik (Serbia) 70 bat kilometro iparraldera. Arazotik libratzeaz gain, turkiarrekiko muga berria birpopulatzeko erabili zituzten erbesterratuak.

1735 eta 1737 urteen artean, mila katalan inguru eramane zituzten bertara, Danubio ibaian barrena, Bartzelona Berria fundatzen zuten. Planak egin ondoren hiria eraikitzen hasi ziren, baita masustondoak landatzen ere. Bartzelona Berriko jarduera ekonomiko nagusia zeta ekoiztea izatea zen helburua, eta fabriketako zeta-harrak elikatzeak masustak beharko zituzten.

Baina amets hura hasi eta hiru urtera amaitu zen. Habsburgotarren eta otomandarren arteko gatazka berehala berpiztu zen eta katalanen lurralde berriak turkiarren erasoak jasan behar zituen behin eta berriro. Hori gutxi balitz, turkiarrek izurria eramane zuten Bartzelona Berrira, eta bizirik iraun zuten bakanek hiritik alde egin zuten. 1808an sute batek hiriarren arrastoak erraustu zituen eta, egun, katalan horiek utzitako aztarna bakarra zeta-harrak elikatzeak landatutako masustondoak dira. ■



Arrastoak

Machu Picchuren benetako aurkitzailea

MACHU PICCHU, ofizialki, Hiram Bingham esploratzaile estatubatuarra aurkitu zuen 1911n. Ez-ofizialki, Agustin Lizarraga, euskal jatorriko lurjabe peruarra 1902ko uztailaren 14an iritsi zen hiri zaharrra, eta hala idatzi zuen ikatzez Hiru Leihoen hormako harri batean. Lizarragaren asmoa ez zen monumentu harrigarriak aurkitzea, laborantzarako lur berriak topatzea baizik.

Handik ia hamarkada batera, 1911ko uztailaren 24an, Binghamek Lizarragaren idazkuna topatu zuen eta ezabatze ko agindua eman zuen, kontserbazio arrazoia argudiatuz. Argazki bat egin zion lehenago eta bidaiari-egunkarian ere aipatu zuen inskripzioa. Baina publikoki ez zuen sekula horren berri eman eta, hala, aurkikuntzaren loria beretzat hartu zuen. Agustin Lizarraga Urubamba ibaiaren uraldietan itota hil zen, Machu Picchura itzultzeko ahaleginean. ■

PPR




Goian, Agustin Lizarraga. Behean, Lizarragak 1902an egindako inskripzioaren argazkia.

www.argia.com/multimedia



Bideoak

Elkarriketak, erreportajeak eta albisteak formatu arin eta azkarrean astero.



Diaporamak

Soinu naturalez, azalpenez ala musikaz girotutako argazki muntaia berritzaileak.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Hitzaldi eta ekitaldi interesgarriak klik batean eta euskaraz, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.



Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitoluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa, euskaraz.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

1936KO GERRA VILLABONAN

Atzoko aztarnak arakatzen, gaurko minaren sendagarri

Oroimen historikoaren berreskurapenean pauso garrantzitsuak eman dituzte Villabonan azken urteotan. Aritza Kultur Elkartearen ikerketen ondorioz frankismoak 1936ko gerra zibilean fusilatutakoen eta errepresaliatutakoen izenak ahanzturaren zulotik atera dituzte.

| URKO APAOLAZA AVILA |

VILLABONAKO UDAL ARTXIBORA sartu zirenean, ikerlariak harri eta zur geratu ziren bertan aurkitu zutenarekin. Gezurra badirudi ere, frankistek ez zuten garbiketarik egin trantsizio aldiko urte nahaspilatsuetan, eta gerra zibileko zientoka dokumentu, karpetak eta txosten konprometigarri hautsa pilatuz egon dira bertako apaletan. “Baina sinestezina zera da, dozenaka urte hauetan inork ez arakatzea paper horiek”, dio Esti Amenabarrok.

Amenabarro pedagogo da eta Villabonako Aritza Kultur elkarteko kidea, Karlos Almorza historialari eta Pello Aranburu argazkilariarekin batera. Euskal Memoria fundazioaren eskariz hasi ziren 1936ko gerran herrian gertaturikoa iker-tzen.

Garai hartan 50 bat villabonatar hil zituzten, horietako asko frankistek fusilatuta. 1936ko azaroaren 15ean 24 lagun hil zituzten Beran, “heriotzaren karabana” batean. Haien artean Villabonako bost zeuden. Daniel Arrillaga, Cipriano Cardenal, Juan Echenique, Maximino Erostarbe eta Adrian Quintana abertzaleak ziren, politikoki aktiboak, EAJko alkate izandako Valeriano Saizarren taldekoak. Irailaren 29an atxilotu zituzten eta Tolosan hainbat egunez giltzapean egon ostean fidantza ordainduta irten ziren. Ez zien askorako balio izan. Hilabeteren buruan berriz atzeman eta Tolo-

sako beste presoekin Donostiako Ondarretara aldatu zituzten; hurrengo egunean aske geratu ziren.

Ondarretan, “aske” uztea, fusilatu izatearen eufemismoa zen. Oiar-tzun, Hernani, Bera... ia gauero abiatzen zen heriotzaren karabanaren bat hiri turistikotik barrualdeko herriota-ko zoko ilunetara. Cipriano Cardenalen ilobak beti jakin izan du bere osaba Berako hilerrian sartu zutela. Txikia zela amarekin joaten zen loreak uztera, eta behin, hango lurperatzaileak anaiaren kartera eta gerri-koa zituela ikusi omen zuen amak.

2012ko abenduan Aranzadi Zientzia elkarteak indusketak egin zituen Berako hilerrian. Horma baten ondoran zazpi lagun hilotzak azaldu ziren, frankistek duela ia 80 urte utzi bezala, eskuak bizkarrean loturik. Lurrazaletik metro erdi eskasera zeuden, norbaitek ahanztura noiz zulatu-ko. Aritza Kultur Elkartek bost villabonatarren izenak berreskuratu ahal izan ditu, baina beste askok ez dute aukera hori izan. Ehundik gora dira Beran lurperatutakoak, baina ezine-koa da guztien berri jakitea, urbanizazio planek eta hondeamakinak irentsi dituzte hezurak. Bide Ertzeanek kantatu bezala, hil gabeko hilotzen loreak sortzen dira orain lur horretan.

Villabonako artxiboko altxor dokumentala *Frankismoaren aztarnak arakatzen* liburuan publikatu zuten Aritzakoek, baina analisi historikorik egin gabe, dokumentu bakoitzaren interpretazioa baino ez. “Ados, udaletxean zer dagoen badakigu –esan zuten Amenabarrok eta bere kideek– baina orain gai bakoitzaz gehiago jakin behar dugu”. Ikerketarekin aurrera jarraitu zuten eta Ferrolen, militarren artxiboan, hildako guztien eta beste askoren datuak aurkitu zituzten; ehundaka orrialdetako espediente mardulak. Segi zuten artxiboak arakatzeko eta testigantzak jasotzen –40 elkarriketa inguru egin



ARGAZKI PRESS /JON URBE



Goian, Berako hilerrian aurkitutako fusilatu baten gorpuzkina. Bost billabonatar lurperatu zituzten bertan, horietako batek Cipriano Cardenalek, gutuna idatzi zien senideei egun bat lehenago Ondarretako kartzelatik (eskuinean). Ondoko orrialdean, Amasako hilerrian fusilatu batzuei egindako omenaldia.

dituzte—. Azkenerako, lan horrek fruitu ugari izan ditu.

Hala, 2013an Amasako hilerriko panteoi batetik lau pertsonen gorpuzkinak hobitik atera zituzten, 1936an Tolosan “armetatik pasata”, parroikia-liburuan jartzen duenez. Hilarriko plakan fusilatu bakarraren izena ageri zen, orain denak daude. Bestalde, Belharra produkzio etxeak dokumentala egin du Bertha Gazte-

koako Foru Aldundiak sustatu du eta beste herrietara estrapolatu litekeen ikus-entzunezko pilotua da. Bertan, ikasle gazteak ageri dira zaharrenei gerraren ondorioez galdezka herriko toki esanguratsuetan.

“Ez genuen nahi gai hau gu hiruron kontua soilik izatea, eta hasi ginen pentsatzen ea nola transmititu herritarrei

sortutako jakintza guztia” dio Amasako barrok. Pasa den udaberrian erakusketa jarri zuten martxan udalak eta aldundiak lagunduta, esku artean zutena modu dibulgatiboan zabaltzeko, batez ere ikas-tetxeari begira. Hasi-

ran 15 egunerako pentsatua bazegoen ere, beste hiru astez luzatu behar izan zuten. 700 pertsona igaro ziren erakusketatik, paneleta-

Huerida madre y hermanos
La presente sirve para decir que me
encuentro sin novedad, G. B. D. en
Ondarreta. Si podéis me mandais
un par de mantas ~~están~~ y almoho
y la comida un par de toaellas
y alparagatas
de lo demás ya saleis lo que me
trase falta y algunos libros viejos
de la tia. Quando vais a
mandar algo mis señas son.
Abgomeración 29 izquierdo.
Ondarreta. Son más por bien se
despide nuestro querido e inmoderado
Cipriano Cardenal
Ondarreta 14 noviembre 1936

Ikerketaren ondorioz nagusietako bat hauxe da: Villabonako Udala erabat lerratu zela Francoren alde. Ez dira gutxi udaletik herritarren kontra egindako txostenak, asko Juan Barbé alkate falangistak sinatuak

lumendi zuzendari eta Xabier Urmeneta gidoilari direla; horretarako Villabonako ikerlarien lana izan dute oinarri. Dokumentala Gipuz-

ko argazki eta dokumentuen peskizan: gerran gertatutakoaren jakinminez batzuk, hainbeste hildako eta itsukeria izan zelako harrituta bestetzuk. Eta gehienek galdera bera buruan: zergatik?

Itaun horri erantzutera dator urte amaierarako prest izango duten hurrengo liburua: *Aztarnak arakatzén II. Egiaren minak*. Zerrendak eguneratu eta memoriaren mapa egiteko asmoa dute, baina hori bakarrik ez. Fusilatuen biografiatxoak, atxilotuen kasuak, emakumei



Bi irudi eta gerra bat erdian. Goian, 1934an ospakizun ezkertiarra Villabonako plazan; bandera errepublikarra ageri da atzean dagoen Zentro Errepublikanoan. Esquinean, toki bera urte batzuk geroago; bandera espainola jarri dute aurrekoaren tokian eta desfile katolikoa ari dira egiten.



zigorrek, gudariak, desjabetzak... Horiek guztiak testuinguruan kokatzeko saiakera da.

Villabonako Udala bere herritarrak salatzen

Ikerlanaren ondorio nagusietako bat haxe da: Villabonako Udala erabat lerratu zela Francoren alde: "Falangek udala bere esku hartu zuen eta baliabide guztiak gerra eta mende-kuaren zerbitzura jarri zituzten". Amenabarraroren hitzetan herrian familia boteretsu batzuek agintzen zuten, gainerakoak "pobreen zerrendan" zeuden. Ez dira gutxi herritarrak zigortzeko udalak egindako informeak, horietako asko Juan Barbé orduko alkate falangistak sinatuak: *indeseable; de ideas extremistas; demostraba su izquierdismo; nacionalista-propagandista...* Detalle osoz informatzen zieten salatariek Falangeari


eta presondegiei. Askok larrutik ordaindu zuten.

Valeriano Saizar Arteagaren kasua esanguratsua da. Militante jeltzalea, udalean kargu politikoak izateaz gain enpresaria eta ekintzailea zen, eta katolikoa. 1936ko abuztuaren 16an frankistak Villabonan sartu eta laster hanka egin zuen. Alaba Carmen, Jose Inazio Lizasorekin zegoen ezkondu-ta, Agirre lehendakariak Londresen zuen kontsularekin, eta suhiak lagundu zion Bilbora ihes egiten. Baina bidean zela, beste askori momentu latz horietan etorritako pentsamendu bera etorri zitzaion burura antza: "Zergatik egin behar dut nik ihes, ez dut deus egin-eta". Getaria parean gelditu eta Balentziaga abizeneko familiaren laguntza extera itzultzen saiatu zen; bidean harrapatu zuten. Hilabetez eduki zuten preso Lasarte-

ko kontzentrazio-eremu batean, harik eta urriaren 9an Orioko gainean gauez hil zuten arte. 72 urte zituen.

Amagoia Gurrutxaga Urangak *Zarauzko postalak* liburuan Orioko Beobate baserriko Maria Zulaikaren testigantza dakar. Bere aitak eta anaiak "alkateak ote ziren esaten zuten" fusilatuentzako hilobia egin zuten egun horietan Orioko gaineko akazia batzuen oinean, karlistek derrigortuta: "Baina ezin izan zituzten sartu, lurrik ez zeukatelako tapatzeko. Antza denez, gainera zerbait bota eta han laga zituzten", dio. Senideek gorputzak isil ostuka eraman zituzten handik, baina Saizarren familiak sekula ez du jakin non dagoen lur emanda.

Benito Berasaluzek ez zuen akabera hori izan, baina eguraldi gorriak ikusi zituen. Villabonako ezkertiarren buruetako bat zen, intelektualki jantzia eta prestua, Eusko Gudarosteko Carlos Marx batailoiko kapitain izatera heldu zen frontearen. Asturiasen atxilo hartu zutenean, Villabonako udaletik igorritako akusazioak probestu zituzten preso sartzeko. Bederatzi kartzelatan barrena ibili zuten oso baldintza kaskarretan eta heriotza zigorra kolkoan zuela. Zazpi urteren ondoren libre utzi zuten eta kanpora alde egin zuen, gerraosteko giro zitala ezin agoantaturik; 50eko hamarkadanitzuli zen berriz herrira. Orduko argazki batean sagardotegiko lagunartean ageri da, aldamenean pertsona ezaguna duela: bera salatu zuen Juan Barbé alkate falangista ohia. "Bizitzan aurrera egin behar da", esan ohi du haren alabak argazkiari begira.



Evarista Sasiainbarrena Ondarretako kartzelan, errosarioa eskuetan duela. Juan Barbé Villabonako alkateak "abertzale amorratua" izateagatik salatu zituen bera eta beste sei emakume (goian).

Jipoi bikoitza emakumeei

Frankismoak bere *sharia* espezifikoa ezarri zien emakumeei, rol eta funtzio sozial batzuetatik aldentzen zena zigortzen zuten, eta ez gerra garaian soilik. Adibide bat: 1952an Paula Iraola villabonatarrak hiru hilabeteko atxiloaldia jasan zuen abortatzeagatik. Hortik gutxira beste bi herritar prozesatu zituzten “infantizidio” delitua egotzita.

Emakume izateagatik egur bikoitza jaso zuten beraz, areago abertzalea edo ezkertiarra izanik. 1936an erreketek Villabonan sartzeaz zirela Antonia Astiasaranen gizonak ospa egin zuen, komunista amorratua zen eta bazekien zer zetorkion. Astiasaranez ez ordea. Nola egingo zioten ezer haurdun egonda? Akain olioak abortua probokatu omen zion.

Evarista Sasiaimbarrenak ere bereak eta bost sufritu zituen. Emakume Abertzale Batzako idazkaria zen —elkarte horrek sekulako indarra zuen Villabonan errepublika garaian: 170 afiliatu 1.900 biztanleko herrian— eta udaletxe parean zuen etxea. Behin joan zitzaion alkatea esanez *colgadurak* —bandera espainola eta bestelako apaingarriak— jarri behar zituela balakoian: “Berak ezetz, ez zuela bandera jarriko —dio Amenabarrok—. Atxilotu eta lepotik ibili zuten, Kale Berriari hamar buelta emanarazi zizkioten, hasieratik bukaerara. Jendea txaloka, Tolosatik-eta ekarrita. Billabonatarren kondairetan bazegoen honen berri, guk dokumentatu eta mapan kokatu dugu, eta erantzuleei izenak jarri”.

Sasiaimbarrenari egindakoa idatziz aitortu zuen Barbé alkateak, “abertzale amorratuak” izateagatik

**Belkoaingo herri lubakia**

ADUNAKO LURRETAN dagoen Belkoain mendian gerra zibileko aztarnak aurkitu ditu Aranzadik, Aritza Kultur Elkartek egindako ikerketetatik abiatuta eta Adunako Udalaren laguntzarekin. 2013ko auzolandegietan erresistentzia errepublikarraren harresiak agerian geratu ziren; uda honetan bala-zorroak eta bestela-

ko gerra materiala berreskuratu dute. UEUrekin elkarlanean, bestalde, testuinguru historikoa azaltzeko jardunaldiak egin dituzte.

Belkoaingo defentsa sistema frankistek 1936ko abuztuan Tolosa hartu ondoren sortu zen eta Kandido Saseta kapitainaren agindupean aritu ziren milizia-noak.

emakume batzuen kontra hasitako gerra kontseiluan: “*El declarante la hizo llevar una bandera española y haciéndola gritar continuamente el ¡Viva España!*”. Evarista Sansiaimbarrena Ondarretan sartu zuten denbora baterako. Halaxe pagatu zuen desobedientzia.

Aritza elkartekoak herritarrekin izan direnean halakoak eta gehiago kontatu dizkiete orratzetik hariraino.

Beste batzuetan informazio kontrajarriak jaso dituzte, memoriaren ajeak. Biktimen familia gehienek ez zuten paper bakar bat ere gertatutakoaz, Amenabarroren hitzetan “asko ahazten eta gairatzen ahalegindu dira”. Espediente eta txosten ofizialak erakustean, askok gogoz eta bihotzez hau esan diete: “Nire zati bat ekarri didazu”. ■

**Etorkizuna oroimenetik eraikiz**

AMASA-VILLABONA



Villabonako Udala



Zergatik ez du katalanez etiketatzen Coca-Colak?

Plataforma per la Llengua elkarteak katalanez etiketatzen ez duten enpresez ikerketa egin du. Coca-Colak komunitate katalanaren neurriko eta hiztun kopuru gutxiagoko hizkuntzetan etiketatzen ditu bere edariak. Hogei urteko eskariak ez du ezertarako balio izan.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

COCA-COLA edari enpresa multinazionalak 200 herrialdetan saltzen du eta 3.500 freskagarri, ur, zuku, te eta kafeak 135 hizkuntzatan etiketatzen ditu. Plataforma per la Llengua hogeitaz hamar urte saiatu da multinazionalak katalanez etiketatu dezan, baina ez du inondik ere halakorik lortu. Euskaraz ere ez du etiketatzen.

Plataforma per la Llengua egin-dako txostenean (*20 anys per l'etiquetatge en català*) elkarteak hogeitaz hamar urte luzatu duen borroka erakusten da. Elkartearen ustez, azpimarratzekoa da Coca-Colak katalan komunitateari ematen dion tratua, kontuan hartuko bagenu hiztun kopurua. Multinazionalak Europar Batasunean duen merkatuari erreparatu gero, katalan hiztun komunitatea baino txikiagoak asko daude. Atzetik datoz frantsesa (Suitzan eta Belgikan), esloveniera, eslovakiera, kroaziera, mazedoniera, lituaniera, letoniera, daniera, islandiera eta beste.

Hiztun kopurua batetik, eta katalanek zenbat Coca-Cola kontsumitzen duten bestetik. 2013an Coca-Cola kontsumoa %13 igo zen Espainiako Estatuan. Eroslerik onenetakoa da Espainiako Estatuak. Coca-Colak Europar Batasunean saltzen duen %14 Espainiako Estatuan saltzen du; zerrendan aurrena Alemania dago (%17). Espainia nazioartean seigarren dago sailkatuta AEB, Mexiko, Japonia, Brasil eta Alemaniaren ondoren. Kataluniari dagokionez, honako alderaketa egin daiteke: katalan komunitateak Belgikako frantses eta nederlandera komu-



Mapan, katalan hiztun kopuruaren antzeko eta txikiagoko hiztun komunitateak ageri dira. Borobilok hiztun kopurua adierazten dute; proporzionalak dira. Hungaria eta grekera hiztun komunitateak baino ez dira katalana baino handiagoak. Berdez koloreztatutako komunitateetan Coca-Colak bertako hizkuntzan etiketatzen du.


nitateen hiztun kopuru bikoitza dauka. Alabaina, Belgikan frantsesez, nederlandera, eta alemanez —100.000 hiztun baino gutxiago— etiketatzen du Coca-Colak. Kontsumoa berriz paretsu doa. Herbehereekin, Norvegiarekin eta Suediarekin egin dezakegu bigarren alderaketa. Herrialde horien bikoitza kontsumi-

tzen du katalan hiztun komunitateak, baina norvegiaraz, nederlandera eta suedieraz etiketatzen du Coca-Colak, ez katalanez.

Hogeitaz hamar urtean bilera bat

Plataforma per la Llengua sortu zenean egin zuen lehenengo ekintza izan zen katalanez etiketatzeko kan-

Coca-Colak kontuan hartu ditu estoniera, islandiera, daniera...



Plataforma per la Llenguak Coca-Cola sinbolo gisa aukeratu du etiketajea katalanez eskatzeko, eta ederki daki hizkuntza politika bera gauzatzen dutela hainbat eta hainbat enpresa erraldoik. Oso antzeko bidea jarraitzen dute Kellogg's, Danone, Bayer, Durex eta Nestlék. Elkarrekin egindako ikerketaren arabera, ezkerreko mapako hizkuntza guztietan etiketatzen dute aipatu berri ditugun enpresek, eta inork ez katalanez.

paina. 15.000 Coca-Cola poto bildu zituzten Catalunya plazan 1993ko abenduan eta *Etiquetem en català* esaldia osatu zuten herritarrek bildutako potoekin. Orduz geroztik kanpaina bat baino gehiago egin du elkarteak. Batean, milaka Coca-Cola poto bidali zituzten Espainiako enpresa ordezkari Cogearen egoitzara, guztiek katalanezko etiketa itsatsita zutela. Bestean, 800 telefono dei egin zituzten astebetean Madrileko egoitzara. Cobega enpresa izan zen 1951n multinazional estatubatuarren kontzesioa lortu zuen lehenen-

goa eta Daurella familia zuen jabe. Enpresa horrekin eta Coca-Cola Españarekin sarri saiatu zen Plataforma per la Llengua bilera lotzen, baina beti ezezkoa. Azkenean, 2007an lortu zuen bilera. Bigarren baterako geratu ziren... eta gaur arte. 2013az geroztik Coca-Cola Iberian Partners du izena AEBetako enpresaren filialak eta egoitza Madrilen du. Elikagaien sektorean, Espainian gehien fakturatzen duen enpresa da; 3.000 milioi euro urtero. ■



‘Nendo Dango’: argiazaleon aleak ama lurrari biziberritzen laguntzeko

Zuhaitz, sastraka eta beste landareen haziak nahastu buztin eta konpostetan, bola txikitan bildu eta erein. Beste edozein jolas bezain atsegina da Argia Egunean praktikatu dugun Nendo Dangoa eta, gainera, gizakiok antzutu ditugun lur eremuei arnas berria itsatsiko diegu.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HASI HAZIAK BILTZEN irailaren 27rako. *Nendo Dango* egiteko behar diren gainerakoak, buztin, konpost eta ura, Argia Egunean prest edukiko dituzu Usurbilen. Egindako bola, pikor eta opiletako batzuk aurten Nafarroa Oinez ospatuko duen Zangotzako *Oinez Basoan* zabalduko ditugu, eta beste batzuk Zubietako erraustegia egiteko urratutako lur eremuan. Uholdeak ere tanta txikiz osatzen baitira, argiazaleok gure alea jarriko diogu ama lurrari, landare berriek lurzorua bezala airea biziberritu ditzaten.

Berrikitan euskaraz publikatu den *Zuhaitzak landatzen zituen gizona* famatua Jean Gionok aspaldi goraipatu zituen egunero batean eta bestean zuhaitzen haziak ereiten dituzten jendeak. Gionoren sujetak ezkurak zuzenean sartzen zituen lurrean makilarekin egindako zulotxoan.

Masanobu Fukuoka japoniarra, nekazaritza naturalaren erreferentzia nagusietakoa izan denak, ez zuen egin hazioi ernatzeko trikimailua sortu besterik: buztinetan bildurik jaurti, animaliek jan gabe hel daitezen euri eta epeltasun egokiz landare berria sortzeko egunera. Nekez aurkituko da zuhaitzak ugaritzeko metodo eraginkorragorik.

Fukuokak asmatutako *Nendo Dango* (Buztinezko bolak) ingelesez *Seed balls* eta *Seed bombs* esaten dute (hazizko bola edo bonbak), frantsesez *Boules de grains* eta *Oeufs Séminals*



Talde honek hazi bola sorta prestatu du Argentinako San Luisen, oihanak berreskuratzeko asmoz.

(hazizko arrautzak). Landa eremu hondatu edo desertifikatuak berreskuratzeko erabiltzen dira, baina baita hiriguneetan ere, abandonatutako lurrrak lorez edo zuhaitzez hornitzeko, sarritan ezkutuko *Gerrilla gardening* (gerrillazko baratzegeintza) eginez.

Usurbila Argia Eguneako *Nendo Dango* tailerrera esku hutsik bazatoz, irakurle, ez duzu kezkatu beharrik: bertan aurkituko dituzu beharrezko ontziak, ura, ongarria, buztina... eta haziak, prefosta. “Baina nik ere lagundu nahi dut aurretik haziak bilduta eramanez!”. O.K., pozik partekatuko ditugu denok ekarritako haziak. Zein hazi?

Euskal Herrian, Mediterraneo nahiz Kantauri isurialdean, hazten diren sastraka eta zuhaixkenak. Baita etxean jan ditugun fruituenak ere, gerezi, haran, sagar eta besteenak. Zuhaitzetan, oraintxe ari dira ematen ezkurak haritza eta artea, erortzen hasita daude urrak, astigar eta ezkien haziak ihartuta prest daude dagoeneko, erramuen *olibak* erortzen ari... Zuhaiak eta sastraketan, elorri zuriak fruituak erakusten ditu, intsusak bezala, gorosti batzuek ere bai...

Bertako espezieak erabiliko ditugu, bertakotuak ere bai —haritz amerikarra...— eta inolaz ere ez inbasiboak. Bildu nahi dituenak, etxean paper gainean zabaldurik eduki ditzala ihartzeko beldurrik gabe.

Atelierrean osatuko ditugun bola eta forma ezberdinetako opilak —maldan behera amilduko ez diren xabalak, esaterako— egun batzuetan lehortzen lagako ditugu eta aste batzuk beranduago jaurtiko. Batzuk Gipuzkoan azpiegitura handiak eraikitzeke hondatutako eremuetan. Eta beste batzuek Nafarroan euskara biziberritzen diharduten ikastolen egitasmoan: Zangotzako *Oinez Basoan*, zeinak zabortege izandako betelana berdetuko duen.

Argia Egunetik aurrera... norbere esku urtero bere *Nendo Dango* propioa egitea! ■



Ultraeskuinaren etxe okupak, hedatzen ari den arriskua

Espainiako Estatuko alderdi ultraeskuindarren jarraitzaileek eraikinak okupatzeari ekin diote azken hilabeteetan, “etxetik kaleratu dituzten espainiarrei aterpea eta laguntza emateko”.

| JUDITH PEREZ |

NEONAZIEN MSR (Mugimendu Sozial Errepublikarra) alderdi politikoa, Liga Joven edota España 2.000 taldeak erlazionatu dituzte mugimendu honekin. Italiako Casa Pound proiektuan oinarritu dira eta eraikinak Zaragozan eta Madrilén okupatu dituzte. Castellón ere beste eraikin bat bere egin dute, baina hau hondatu egia dago. Bartzelonako Casal Tramuntana eta Valentziako M^a Luisa Navarro etxe sozialekin ere zerikusia dute, antza, azken okupazioek.

Zaragozako “etxe soziala”

Ekainean MSR alderdiaren jarraitzaileek Zaragozako Las Fuentes auzoan dagoen eraikin bat okupatu zuten. Ohar bat igorri zuten esanez ez zutela zerikusirik MSR edo inolako alderdi edo talderekin, baina okupazioa hasi zutenetik MSRren siglak eta sin-



Keinu faxistak Madrilgo zentroan. Etxebizitza eta lan duinaren aldeko ideiak baliatu dituzte xenofobia hedatzeko.

bologia duten panfletoak banatu dituzte.

Las Fuentes eta Zaragoza multi-arraziala. Bizikidetzaren duinaren alde, faxistak gure auzotatik at lemapean ultraeskuindarren kontrako manifestazioa egin zen uztailaren erdialdean, eta

okupatutako eraikinaren aurrean komunikatua irakurri zuten. “Etxe sozialeko” kideek *pobrezia ez du aurpegi-rik* idatzita zuen pankarta batekin erantzun zieten manifestatzaileei.

Madrilgo “etxe soziala”

Zaragozaren ereduari jarraituz, Madrilgo Tetuan auzoan ere eraikin bat okupatu zuten abuztuan. Talde antifaxistek kontrako manifestazioa deitu zuten abuztuaren 30ean *Arrazistak gure auzotik kanpo* lemapean.

1.000 pertsona inguruk hartu zuten parte manifestazioan, eta, Zaragozan egin zuten bezala, okupatutako eraikinaren aurrean komunikatu bat irakurri zuten. Ez zen istilurik egon, baina okupatzaile batzuk agur faxistarekin erantzun eta irainak bota zituzten eraikinaren teilatutik. ■

«Etorkinaren aldeko diskriminazio positiboa egiten dute instituzioek»

“GOBERNUZ Kanpoko Erakundeek eta instituzioek etorkinaren aldeko diskriminazio positiboa egiten dute, eta bitartean zakarrontzietan bila dabiltzan espainiarrak ikusten ditugu. Jende babesgabe asko dago, eta horiek laguntzea da gure helburua”. 24 urteko emakume madrildarra da mintzo dena, filosofian lizentziatua. Madrilgo zentroko bozeramailea elkarrizketatu dute La Ser irrati-katean. (...)

Ezinbestean, Greziako Urrezko Egunsentia dator gogora. Madrilgo bozeramailearen hitzetan, “gure herria maite dugula partekatzen dugu haiekin”. Alderdi ultraeskuindarra defendatzen ere entzun dugu irratiari: “Onak ez dira hain onak ezta gaiztoak hain gaiztoak

ere. Hedabide guztiak ados jartzen direnean erakunde bat difamatzeko, zerbait ari dira ezkututzen”.

Migratzaile magrebtar eta aljeriarrak hirian gizarte-laguntzetatik bizi direla eta lan egiteari uko egiten diotela bota du uda honetan Javier Maroto Gasteizko alkateak. Halako adierazpen interesatuak gizarteaz zabalduz gero, ez gaitezen harritu dagoeneko Italian eta Espainian ugaritu diren “zentro sozial” eskuindarren modukoak iristen badira Euskal Herrira ere.

Mikel Garcia Idiakez

argia.com Artikulu osoa Jendartean blogean.



«Independentziarekin, etorkizun hobe, justuagoa eta oparoagoa eskuratuko dugu»

Jim Mather (Lochwinnoch, 1947) Eskoziako Gobernuako Enpresa, Energia eta Turismo ministroa izan zen SNPko lehen agintaritzan, 2007tik 2011ra. Independentziarako bidea ireki dezakeen erreferendumaren atarian, ekonomiarenak gai gako izaten jarraitzen du. Horixe da, hain zuzen ere, Matherren jakintza arloa. Eta horiei buruzko galderak erantzun dizkio ARGIAri.

| ANDER PEREZ |

Eskoziako erreferendumeko atarian aukerak nahiko pareko daude, eta ez dago batere argi zer gertatuko den. Nola ikusten duzu egoera?

Momentua baieztatzeko aldeko kanpainarena da, kalean egindako lanari esker eta Alex Salmond azken telebista eztabaidan izandako papeari esker. Londreseko *establishment*a eta jabetza Londresen duten Eskoziako hedabideen jarrera are desesperatuago bilakatuko da hurrengo egunetan, eta printzipiorik gabea.

2000. urteko oroitzapen batek ematen dit konfiantza. Orduan hautakundeetara aurkeztu nintzen, SNPko hautagai gisa, eta tokiko hedabideek %14ko emaitza aurreikusi zuten gure alderdiarentzat. Azkenean botoen %29 lortu genuen.

Independentistek diote independentzia onuragarria izango litzatekeela Eskoziako ekonomiarentzat. Unionistek, aldiz, kontrakoa. Nola dakite herriarrek zeini sinetsi?

Konfiantza kontua da. Eskoziako Gobernuak, SNPren eskutik, trebetasuna eta zintzotasuna erakutsi du 2007az geroztik, eta argi utzi du bat datorrela Eskoziako herriaren interesekin. Bitartean, Londreseko gobernu ezberdinek hazkunde tasa

baxuak ekarri dituzte Eskoziara azken 50 urteetan, Erresuma Batuko gainerako lurraldeekin eta beste herrialde txiki garatuarekin parekatuz. Aberats eta pobreen arteko ezberdintasunak handitu dituzte, populazioaren hazkunde geldiarazi, talentu handiko pertsona askoren emigrazioa bultzatu eta ELGAko (Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundea) bizi esperantza txikienera ekarri. *Torien* (Erresuma Batuko Alderdi Kontserbadorea) gobernuak Eskoziari botere gehiago emateko 1979an egindako promesak era lotsagarrian ukatu dituzte.

“Londreseko *establishment*aren jarrera are desesperatuago bilakatuko da hurrengo egunetan, eta printzipiorik gabea”

Zergatik izan behar luke onuragarri?

Estatu independente baten botere guztiak emango lizkigukeelako lehiakorrak izan eta egoera zoro honetatik askatzeko, non, besteak beste, zergak biltzeko tasa bera erabiltzen den Londreseko erdigunean eta Eskozian.

Eta zein da balizko Eskozia independente baten biziraupen ekonomikorako oinarria?

Eskoziaren arrakasta ekonomikorako oinarria anitza eta osagarria da. Energiaren (hidrokarburoak eta energia berriztagarriak), uraren eta elikagaien ekoizpenean buruaskiak gara. Hezkuntza sistema oso ona dugu, osasun sistemak hobekuntza handiak izan ditu, nazioarteko arreta eta borondatea alde ditugu, jende argia eta industria sektore indartsuak. Eta gainera, nazioartean bizi diren eskoziarren sarea daukagu, “aberri zaharrak” arrakasta izan dezan atzerrian laguntzeko motibatuta dagoena.

Iritzi kontrajarriak daude Iparraldeko Itsasoan gera daitezkeen petrolio erreserben kopuruaren gainean. Zenbat gehiago ustiatu dezake Eskoziak?

Existentziak sekula ezin dira erabat zenbatu, baina badakigu etekinak izugarriak direla. Iparraldeko Itsasoko petrolio barrilen kopurua 16,5 eta 24 miloi artekoa da, eta orain arteko estimazioek beti gutxietsi dituzte erreserbak eta prezioak. Orain, gainera, petrolioaren berreskuratze teknika berri eta hobetuen perspektiba daukagu, eta

baita erreserba berrien esplotazioa ere Eskoziako hainbat lekuetan.

Zer egin nahi du SNPk petroliotik lortuko den diru horrekin?

Norvegiako eredia jarraitu nahi dugu, trantsizio finantzarioa kudeatuz eta etorkizuneko belaunaldiarentzat Petrolio Funtza sortuz.

Zer da hori?

Norvegiako Pentsio Funttsaren baliokide eskoziarra litzateke. Diseinatura legoke Eskoziako ekonomiak beste sektore batzuetako prezioak gainberotuko ez dituela bermatzeko, eta baita etorkizuneko belaunaldiak babestu eta aberasteko.

Edonola, petrolioaren egunen batean bukatuko da. Zein da Eskoziaren alternatiba?

Europako populazioaren %1 daukagu, eta Europako petrolio eta gas erreserben %60 daukagu. Baliabide honen erabilerarik onena egin nahi dugu, Eskoziaren independentziarako trantsizioari laguntzeko eta petrolioaren eta gasari lotutako trebetasunen esportatzaile bihurtzeko. Fase honek 50 urte inguru iraun ditzake.

Energia berriztagarrien garapena ere bultzatu nahi dugu. Hala, Europako itsaso zabaleko energia eolikoren %25 esplotatu nahi dugu, eta baita Europako mareen energiaren %25.

Eskoziar independentistek diote independentziak bestelako eredu ekonomiko eta soziala ekar dezakeela. Zertan ezberdintzen da eredu hori gaur egungoaz?

Helburu nagusia enpresariak, sindikatuak eta langileak laguntzea da, lan esparru adostuago bat sortzeko. Horrek, argi eta garbi, talka suposatzen du Westminsterrek azken 25 urteetan garatu duen eredu iparramerikarrarekin.

Herrialde baten aberastasunak ez dakar derrigorrez bere herritarren aberastasuna. Eskoziak, hain zuzen ere, ezberdintasun sozial ikaragarriak ditu aberats eta pobreen artean. Independentziak bermatu dezake aberastasunaren banaketa justua?



“Europako populazioaren %1 gara, eta Europako petrolio eta gas erreserben %60 daukagu. Balaibide honen erabilerarik onena egin nahi dugu”.

Bai, eta lagundu dezake jende gehiagok konfiantza, anbizio pertsonal eta komunitarioa, trebetasunak, lana, gogobetetzea eta ongizatea har ditzan.

“Helburua da lan esparru adostuago bat sortzea, eta horrek talka egiten du Westminsterrek azken 25 urteotan garatu duen eredu iparramerikarrarekin”

Salmondek behin eta berriro esan du Eskoziak libra erabiltzen jarraituko lukeela. Unionistek, ordea, ezetz diote. Zer gertatuko da Londresek ate hori ixten badu?

Ez nago ados unionistek diru-batasuna errefusatzeko logikarekin.

Nahiago dute, nahita eta maltzurkeriaz, diru-batasunak ekarriko lituzkeen etekinen aurrean ez ikusiarena egin.

Edonola ere, Alastair Darlingek (*Better Together* kanpaina unionistako burua) eta beste batzuek onartu dute ezin dute la eragotzi Eskoziak libra erabiltzen jarraitzea. Adam Smith Institute eta Citigroup bezalako erakundeek ere esan dute Erresuma Batuentzat onena litzatekeela diru-batasun horretan parte hartzea. Denak onartzen ari dira kontrakoa eginez gero, Londreseko gobernuak litzatekeela Erresuma Batuko zor nazionalaren Eskoziako partearen erantzule.

Eta libra partekatuz gero, ez al dago arriskurik BOEko (Bank of England)



**“Torien gobernuek Eskoziari botere gehiago emateko 1979an egindako promesak era lotsagarrian ukatu dituzte”.
Irudian, nuklearren kontrako eta osasun sistema publikoaren aldeko pintaketa.**

erabakiek Eskoziaren politikak mugatzeko?

Eskoziako ekonomia aro berrian sartuko litzateke. Guk, herriak, oparotasunarekin eta finantzen zintotasunarekin konprometitua dauden gobernuak bozkatu ahal izango ditugu; beharrezko bermeak lortuko ditugu Ingalaterrarekin negoziatutako diru-batasunerako akordioa mantentzeko. Era berean, Ingalaterrak eman nahi izan ez dizkigun botere guztiak aberriratuko genituzke, bereziki zergak, ongizatea eta zorpetzearen gainean eskumenak irabaziz.

Esana duzu herrialde txikiek aukera handiagoak dituztela arrakasta ekonomikoa eskuratzeko. Zergatik?

Horrelako kasuetan gobernuak herriarengandik gertuago dago, kontsultatu beharreko eskualde gutxiago daude, elkarrekintza gardenagoa da, elkarriketa eraginkorragoa eta ordezkatzaileragoa, eta antzeko herrialde gehiago daude, euren gertutik ikasi eta euren lehiazteko.

Hau guztia aplikagarria al da Euskal Herria edo Katalunia bezalako nazio txikientzat ere?

1945ean 74 estatu zeuden munduan, eta orain 196. Munduan joera bat dago, eta ziur nago Euskal Herriko eta Kataluniako jendea horretaz eta joera hori bultzatu duten faktoreetatik oso kontziente izango dela.

“1945ean 74 estatu zeuden munduan, eta orain 196. Munduan joera bat dago, eta ziur nago Euskal Herriko eta Kataluniako jendea hori bultzatu duten faktoreez oso kontziente izango dela”

Zergatik proposatzen du Eskoziako Gobernuak britainiar koroaren pean jarraitzea?

Konstituzioa aldatzea mugimendu handia da, eta asko dira aldatzeko gehiagorekin eta bestelako estatu buruak izateko arriskuarekin —

aukeratu gabeko politikari ohiak lirateke — kezkatuta daudenak. Horregatik, nire ustez, ez da beharrezkoa gai horri heldzea.

Zer gertatuko da irailaren 18an baiezekoak irabazten badu? Eta ezezekoak irabaziz gero?

Baiezekoak irabaziz gero, Eskoziarentzako aro berri ausarta irekiko da. Etorkizun hobe, justuago eta oparagoa eskuratzeko dugu, mundu mailan paper etiko eta positiboa izaten utziko diguna.

Ezezekoak irabazten badu, Eskoziak arlo ekonomikoan, sozialean eta kulturean galduko du epe motzean. Epe luzera, unionisten promesak apurtu eta emaitza txarrak biziko ditugunez, indepen-

dentziarako bidean sakondu egingo da. Charles Stuart Parnellek Irlandako testuinguruan esan zuen moduan, “inork ez du eskubiderik nazio baten bideari mugak jartzeko”. ■



Seaskan 137 ikasle gehiago, haize kontra bada ere

SEASKAK 2014-2015 eskola sartzearen datuak eskaini ditu: 3.220 ikasle ikastola guztiak kontuan hartuta, iaz baino 137 ikasle gehiago. Ikastetxeak haur-gazteez mukuru dira, nahiz eta Frantziako Estatuak eta bateko eta besteko herriko etxeek eskoletako atak irekitzeko baino ixteko bultzadak eman.

Ziburuko haur eskola da kinka larrian dagoena. Irailaren 15ean obrak hasiko dituzte Seaskak 12 haur bungalowan dituen lur eremuan. Guy Poulou Ziburuko alkateak ohartarazi du Seaska: obrak hasiko dira eta ikastolarentzako

tokirik ez dago. Irtenbiderik ez du proposatu, isuna bai, haurrak ikastolara eramaten jarraitzen badute. Isunaz gain, ura eta argindarra moztu dizkiete. Kazetariei erantzuten, bere etxeko atarian irudikatzen dut Poulou, irribarrez esanez: “Ni baino gehiago zinetela uste al zenuen ba?”.

Seaskak esan du haurrek eskolara joaten jarraituko dutela, eguneko behar dituzten 200 euroak (100 euroko isuna eta argindarra sortzeko makinaren alokairua) ordainduko dituztela. Han segituko dute aterabideren bat aurkitu arte.

Katalunian 40 familiak eskatu dute eskolan gaztelaniaz aritzea



XAVIERPUJOLGUARRO.BLOGSPOT.COM

Eskola katalanaren aldeko leloa darama emakumeak bizkarrean.

ESPAINIAKO Gobernuak Hezkuntza Ministerioak bi eskola sare osatu nahi ditu, bata katalanez arituko dena, eta bestea, gaztelaniaz arituko dena. Familiak gaztelania aukeratu nahi badute horretarako eskubidea daukate. Bada, 2014-2015 ikasturtean 40 familiak baino ez dute eskatu haien seme-alabak gaztelaniaz aritzea. Orain eskaera guztiak banan-banan aztertuko dituzte onartu ala ez erabakitzeko. Izan ere, Kataluniako Hezkuntza kontseilari Irene Rigauk adierazi du eskaera horietako batzuk dekretua onartu baino lehenagokoak direla eta beste batzuk matrikulazio epetik kanpo egin direla.

Lomceren arabera, Generalitatea ez bada gai gaztelaniaz ikasi nahi duen haurra eskola publikoan eskolaratzeko ikastetxe pribatua aurkitu behar dio. Hala eginez gero, erkidegoaren transferentzietatik 6.000 euro kenduko lizkioke haur bakoitzeko Espainiako Hezkuntza Ministerioak.

EKONOMIAREN TALAIAN

Lan prekarietateak ere hiltzen du

BAI, LANEKO PREKARIETATEAK, gainean dugun kapitalismo basatiaren bultzadaz, hil egiten du. Euskal errealtateak beste behin erakutsi digu hori. Abuztuko azkeneko eta iraileko aurreneko lehen egunetan bost langilek galdu dute bizia, hiruk eraikuntzan. Urtean zehar 30 dira hildako langileak. Hori da sinetsarazi nahi diguten berreskuratze ekonomikoa, langileen eta beren familien sufrimenduan eta heriotzan oinarritua. Administrazioak dio hildakoak asko murriztu direla. Baina ezkututzen dutena haxe da: egitan murriztu dena aktibitate ekonomikoa dela eta ondorioz lan istripu gutxiago dagoela. Hildakoak tarteko adineko pertsonak izan ohi dira, immigranteak eta beste enpresa batek azpikontratatuak.

Joan den astean Euskal Herriko sindikatu eta eragileen protestak egin dituzte. Lan prekarietatea salatu dute, azpikontratatzeko, hildakoak eragiten dituzten murrizketa sozialak, segurtasunean nahi-

koa inbertitzen ez duen Patronalaren jarrera, administrazioen pasibotasun konplizea, eta abar. Hori guztia ondo dago. Baina bi gai nabarmendu behar dira: Sindikatuek eta enpresa batzordeek ez lukete mugatu behar lan istripua gertatzen den bakoitzean hura salatu eta mobilizatzea. Adi egon behar lukete azpikontratatzeko, lan esplotazioa, ordu estrak eta segurtasun falta daudela sumatzen duten enpresetan. Batzordeak dauden tokietan, hori zaintzea erraza da. Baina zaintza hori batzorderik eta sindikaturik ez duten enpresetara zabaldu behar litzateke, hor baitute lan istripuak izateko arrisku gehien. Eta badaude baliabideak egiteko. Azkenik, fiskaltzak bere kabuz ekin behar lioke istripuak ikertzeari, salaketa egon ala ez. Ez al da ba nahikoa lanean hildako bat egotea?

Juan Mari Arregi



**Eskulanen
Etxea**

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com

Infernua zenbakitan: Gaza 50 eguneko gerra isildu ostean

Gazan Israelgo armadak egin duen sarraskia da XXI. mendean delako gerra asimetriko batek harrapatutako populazioari eragiten dizkion kalteen adibide muturrekoa. 50 egunez Gaza kiskali duen guduan arrazoia gerlarietako nork duen galdetzea alferrikakoa da, hain da neurrigabea alde batek eta besteak nozitutako ondorioen konparaketa.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

HAZEM ABU MURAD LEHERTU BAKO bonba israeldar bat desaktibatzen ari zela hil zen bere taldeko dozena erdi gizonekin batean abuztuaren 13an. Gazan lan horretan aditu nagusia zenak kalkulatu zuen ordura arte (su-etena 26an helduko zen) Israelek lurretik, itsasotik eta airetik jaurti zizkietela 18.000-20.000 tona bonba, misil eta artilleria bidez. Ali Abunimah idazleak *The Electronic Intifada* gune ospetsuan alderatu du leherkari kopuru hori Hiroshiman 1945an AEBek jaurtitako bonba atomikoarekin.

Kilotoia da mila tona TNTk eztanda egitean askatzen duten energia kopurua. Hiroshimako bonba atomikoak 16 kilotoi askatu zituen, 16.000 tona TNTk adina. Gazan Israelek 18.000-20.000 tona bota ditu. Horiez gain, Murad artifizieroak kalkulatu zuen 1.000 tona gehiago leherkari dagoela zapartatu gabe Gazako kale, etxe eta bazterre-tan abandonaturik.

Gazatik, berriz, Israelen kontabilitatean 3.360 jaurtigai bidali zitzairen, suziri eta morteroak gehienak. Ba omen dauzkaten arren, Iranek emanik, 150-200 kilo leherkari daramatenak, Hamasen milizianoek darabiltzaten gehienak 20-50 kiloren bueltan dabilzala diote adituek. Kontuak eginez, azkenerako 4.000 suziri sutu baldin badira, 50na kilo

kontatuz denetara 200 tona lehergai emango lukete: ale batzuk 150 kilo-koak balira ere inolaz ere ez lirakeke denetara 400 tona baino gehiago.

Ali Abunimah Israelgo prentsak eta armadak berak plazaratutako informazioetan oinarritzen da argudiatzeko 2009ko *Berun Urtua* operazioan lehertu zutena halako bost munizio erre duela israeldarren artilleriak bakarrik, 30.000 edo 40.000 artean. Horietako asko 155 milimetrotako pepinoak dira; 50 x 50 metroko lur eremua harrapatzen dute eztanda egitean.

Tankeek, berriz, operazio hone-tan masiboki erabili dituzte *Kalanit* eta *Hatzav* munizioak. Gai dira bai lurra ukitu aurretik lehertzeko airean, edo bai eztanda egiteko hormak zulatu ostean eraikinen barruan. Jaurtigailuok sortu izanagatik Israelen saritu duten Danny Peretzek kazetariei azaldu zien beharrezkoak direla oraingo gerrak asimetrikoak direlako: “Orain borroka ez da tankeak tankeen kontra, zuk gai izan behar duzu jendea erasotzeko eraikin barruetan bezala kanpoan denean, gutxi gora behera joaz gordeta dauden lekuetan”.

Etsaiak “gutxi gora behera gordeta” dauden lekuak kolpatzea bilakatu da XXI. mendeko gerra guztietan taktika nagusietakoa. Zer egingo zaio etsaiak —matxinoak,

Mohammed Asadek eginik *APA images* zer-bitzuak hedatutako irudiak erakusten du Gaza iparrean dagoen Beit Hanoun nola zegoen abuztuaren 13an. Egun batzuk lehenago Israelgo armadak jakinarazi zuen bere “lurreko, aireko eta itsasoko indarrek kolpatu zituztela Gazako zerrendako 4.762 gune terrorista”. Luzean 20 kilometro iristen ez den eta zabalean 3-5 kilometro baino gehiago ez duen lur muturrean asko dira 4.762 gune, areago kontutan edukiz artilleriaren lehergaiek 50x50 metroko azalera harrapatzen dutela, airetik jaurtitako tona bateko bonbek 300 metro arte. Puntu horietako bakoitza behin eta berriro eraso zen gainera. Soilik artilleriako bonbatan Gazara 40.000 ale jaurti zirela adierazi dute militar israeldarrek. Aipatu den arren 20 urte beharko dituela lurralde honek bere onera etortzeko, zaila da normalizatzeko eperik markatzea tamaina horretako txikizioaren aurrean.

terroristak...— populazio zibilaren artean gorde baldin badira... Tankeen eta artilleriaren sua bezala, gerra asimetrikoaren taktika berak segitu ditu Israelek airetik Gazako ofentsiban. Shujaiya auzoari bakarrik tona bateko 100 bonba “oparitu” zizkieten, laserrez gidaturik 300 metroko ingurua kaltetzen dutenak.

Suntsiketa programatua

Estrategia militarrek *gerra asimetrikoaren* eredutzat aipatzen dute Israelek Gazan Hamasen kontra daramana. *Wikipediak* dioen gisan, Israelek armada oso indartsua daukan bitartean, erakunde palestinarrek ez daukate eskala horretako tresneria militarrik; ordainetan, taktika asimetrikoak darabiltzate: frankotiratzailak, mugaz gaineko tiroketak, morterozko erasoak edo bonba-suizidak.

Israelek bere bonbardaketa masiboarekin Gazan erakutsi du zein neurritaraino diren asimetrikoak gerra honen ondorioak ere. Haste-ko, biktimatan.

Israelen: 66 hildako (horietan 6 zibil), 450 zauritu (80 zibil). Gazan: 2.150 inguru hildako (zibilak 1.400-1.600), zaurituak 11.000, preso hartuak 250. Hildako israeldar bakoitzeko 32 gazatar erori dira. Baina asimetria handiagoa da bi herrialdeen populazioari begiratuz gero.



lazioak zabalduak zituen Nazio Batuen laguntza erakundeen eskariz errefuxiatuentzako elikagaiak ekoizteko. Bonbek suntsiturik utzi dute.

Argindar zerbitzua ere suak eraman du. Salaheddin karrikan zegoen zentral elektrikoa, eskualdeko nagusia, deus ez da gaur. Urte betean generadoreekin moldatu beharko dute, herritarrek bezala ospitaleek eta lantokiak.

Nekazaritzan 17.000 hektarea baratze eta soro galdu dituzte baserritarrek. Zeuzkan oilo eta oilasko guztien erdia baino gehiago galdu du eskualdeak. Behitegi ugari ere bai.

Nazio Batuen Erakundeak Gazan garapen programen buru daukan Trond Husby esan du eskualde honen suntsiketa maila okerragoa dela Somaliak, Sierra Leonek, Hego Sudanek edo Ugandak daukatena baino. Zertarako aipatu langabezia, azken guduen aurretik %45ean baldin bazegoen, 700.000 pertsona diru sarrerarik gabeko familietan...

Abuztuaren 26az geroztik ofizialki bakea dagoenez, gazatarrak saiatzen dira bizimodua ateratzen. Nazioarteko laguntzaz gain beraiek saldu edo erosi behar duten oro zorrotz itxitako mugako kontroletatik pasa behar dute. Israeliek zabalik dauzkan bakanak zeharkatzeko baimenak tantaka ematen ditu. Gazak 1.000 kamioi bete material behar luke egunero, ez dira iristen 350 baino gehiago eta ez beti. Treguan ere bakerik ez du ematen indartsuak. ■



Gazan 1.816.000 jende bizi da, milatik bat baino gehiago hil du 50 eguneko guduak. Israelek 8.146.000 biztanle dauka; Gazaren proportzioa mantenduz gero, ia 9.000 herritar hilko zizkiten.

Erasoengatik beren etxeetatik ihesi joandako errefuxiatuak Israelen 5.000-8.000 izan dira. Gazan abuztuaren 5erako etxeetatik alde eginak ziren 520.000tik gora, azkenerrako herritar guztien herena. 17.000 etxebizitza erabat suntsitu dituzte; beste 37.000 gehiago bertan ezin bizitzeko adina kaltetuta daude. Ehunekotan, Gaza hiriko apartamenduen laurdena eta Beit Hanoun auzokoen hiru laurdenak.

Ondorio ekonomikoen kalkulu orokorrik ez dugu ikusi. Wikipediak

dio Gazaren kontrako aurreko eraso handiak, 2009ko *Berun Urtua* delakoak, 4.000 milioi dolarreko kalteak ekarri zituela, Gazaren urteko Barne Produktu Gordin osoa bider hiru. 50 egunok ekonomian utzitako zauria handiagoa izan da aditu batzuentzako, aurrekoa halako hiru edo gehiago. Eskualde batek nola gaintitzen du hilabete eta erdian galtzea urteko Barne Produktu Gordina bider bederati?

Gazako fabriken hamarretik bat suntsitu dute Israelgo armadaren bonbek, 360 baino gehiago. Asko txikiak, baina handiak ere bai. Al Awda enpresak 40 urte zeramatzan jakien industrian, opil, izozki eta beste ekoizten 450 langileri emanek enplegua. Berrikitan insta-



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com





Mobilizazioa eta instituzioak

MOBILIZAZIOAREN unea da orain Katalunian, gero gerokoak. Diadak erakutsiko du gizarte katalan soberanistaren indarra, orain arte prozesu independentistaren akuilurik garrantzitsuena. Alde horretatik arrakasta segurtatua dago, batez ere azken lauzpabost urteetako kalearen eremua soberanista delako erabat. Unionismo espainiarra erabat marjinala da kalean eta ateratzen den bakoitzean, honek bere helburu bateratzaile edo menderatzailearen irudia kaskartu besterik ez du ekiten.

Datorren astean esparru instituzionalaren txanda izango da eta Kataluniako Legebiltzarrak azaroaren 9ko kontsulta babesteko Kontsulta legea onartuko du hilaren 18 edo 19an, 135 parlamentaritik 107ren babesarekin. PSCk azaroaren 9ko kontsulta babesten ez badu ere, Kontsulta Legea bai. PP (19 eserleku) eta Ciudadans (9) aurka dira. Ordurako ezaguna izango da Eskozian gertatutakoa. Han independentistek irabaziz gero, hauspoa itzela izango da.

Iraileko azken hamabostaldian Generalitateak ofizialki deituko du azaroaren 9ko kontsulta eta, berehala, Espainiako Gobernuak inpugnatuko du, legezkoa den ala ez esatea Auzitegi Konstituzionalaren esku utziz. Honek azkar ebatzi beharko du, eta denak adierazten du Kontsulta Legea legez kanpo utziko duela.

Laugarren urratsa, obeditu ala ez erabaki beharra. Gaitza dirudi kontsulta egitea baldintza horietan eta ez bakarrik CDC eta Masen ausardia kontuengatik, mugimendu soberanistari, fase honetan, kontsulta Espainia atzerrian deslegitimatzeko tresna gisa erabiltzea komeni zaiolako baizik. Indepen-



dentziarako giroa asko elikatu behar du oraindik eta horretarako, orain arte bezala, elikatzaile garrantzitsuena Espainiaren eze-tza da. Ez da oraindik desobediencia instituzionalaren unea iritsi eta

Edinburgon ez da ikusi herritarren mobilizazio erraldoirik, prozesu independentistaren motorra SNPren gobernuaren izan da

batek daki helduko den ere ez. Goiz da halakoez jarduteko, besteak beste, Espainia ez delako bakarrik debekura mugatuko eta eskaintzaren bat ere egingo duela. Edonola, komeni da Xavier Sala i Martí ekonomialari katalanaren hausnarketa aintzat hartzea: ezin da sarri desobeditu, behin izan behar da eta ondo hautatua, bestela Espainiak instituzio autonomo gabe uzten bazaitu, nork aldarrikatuko du gero independentzia?

Gero eta indar handiagoa hartzen ari den hipotesiari jarraiki,


beraz, hauteskunde autonomikoak aurreratzeko unea litzateke; eta hemen bai, CDCk erabaki beharko du ERCekin batera osatutako zerrendan independentziarako eskaintza argia egin ala ez. Dirudienez, hori izango da une giltzarrietakoa eta CDCk bere etorkizuna du jokoan, zeresanik ez Pujol auziaren ondoren.

Bitartean, kontsultaz haragoko bizitzak aurrera darrai eta Generalitateko ekonomia sailburu Andreu Mas-Colell aho txikiarekin esaten ari da urte bukaeran kaudimen arazoak izango dituela. Gaur egun, zein instituzioek ez, ezta? Egia, baina gatazka instituzionaleko giroan, Espainiak bapo baliatuko du egoera hau Masen Gobernuaren estutzeko eta herritarren artean beldurra barreiatzeko. Espainia ez da ia erantzuten hasi, baina hasiko da, bai azenarioarekin eta baita egurra-ekin ere.

ESKOZIAN baietza hasi da irabazten inkestetan. Zalantzan direnen botoekin irabazi edo galduko dute independentistek azken orduan eta, dirudienez, justu-justu. Edinburgon ez da ikusi herritarren mobilizazio erraldoirik, prozesu independentistaren motorra SNPren gobernuaren izan da. Eta honen helduleku garrantzitsuenak, kontserbadore ingelesei kontrajarritik, ongizate gizartea, ikuspegi soziala eta ekonomiaren neurri bateko kontrol publikoa. Irabazte-kotan oinarri horiekin irabaziko du Salmond. Euskal lurretan aktore baina so-egile garen une zehatz honetan, prozesu arrakastatsua-goetatik ikasteko aukera bikaina da. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat

Atxaspi Hotela



Bi lagunentzako
relax gaua

Bittirika kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

Iruñeko Planetarioa



3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2

Eureka! Zientzia museoa



2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

3



Zarama

5 CD opari

www.baga-biga.com

4

Argia kamiseta



Kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2425. Argia)

LAR ZALDIAK

- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)

AQUARIUM

- Getxoko Euskara Zerbitzua (Getxo)
- Dioni Beraetxe Aranburu (Usurbil)
- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)
- Maite Aboitiz Atxurra (Bilbo)

SAN TELMO

- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
- Pedro De Errekagorri Y Etkezarraga (Lemoa)
- Edurne Zuazabeitia Olabe (Gasteiz)

EUREKA

- Maider Guridi Zumalde (Madril)
- Gloria Soledad Larrañaga Urrutia (Donostia)

BIXENTE AMEZTOY

- Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



argia eguna

IRAILAK 27 USURBIL

FRONTOIAN ETA ASKATASUNA PLAZAN

9:30 HERNANIKO FANFARREA

10:00 JAIAREN IREKIERA EKITALDIA

10:15 IBILALDI GIDATUA

JAKOBA ERREKONDO, JON ANDER GALARRAGA ETA JOSU TELLABIDEREKIN

10:15 HAURRENTZAT JOLASAK

10:30 'EGIN ZEUK' AZOKA

11:30 'NENDO DANGO' TAILER EKOLOGISTA

12:00 ARGIAZALEEN TOPAKETA

14:00 BAZKARI EKOLOGIKO ETA UMORETSUA

ASISKO URMENTA ETA KIKE AMONARRIZEKIN

16:30 NAN ESPAINIAR/FRANTZIAR JAURTIKETA


BOLA-JOKO ZIRIKATZAILEA

17:00 BERTSO SAIOA

AMETS ARZALLUS, MIREN AMURIZA, JULIO SOTO
UXUE ALBERDI, SUSTRAI COLINA ETA ROSI LAZKANO
SARRERA 5€ - BERTAN SALGAI

18:30 ANDRABANDA KALE EZTANDA

22:00 KONTZERTUAK



LAGUNTZAILEAK

antza
komunikazio grafikoa

